2025-12-05 BARIKUA / 1.045. ZENBAKIA / 24. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM

# anboto

*Lekuan lekuko.*




## BERTAN DA! AZOKA

60. urteurreneko Durangoko Azokak gaur zabalduko ditu ateak, Ikasle Egunagaz. Gotzon Gomezen lehenengo azoka izango da Gerediaga elkarteko presidente legez. Asteburuko agenda bete-beterik izan arren, gogotsu dago Kulturaren Jaialdia abiatzeko / 2-3

### Arantza Plazak jantziko dio txapela Bizkaiko Txapelketako irabazleari

Finalean Altubek, Bizkarrak eta Pagonabarragak kantatuko dute; Plazak jantziko dio txapela irabazleari / 18





### Carballo eta Gerrikabeitia errugbiko Europako txapeldun 18 urtez azpiko mailan / 20

UNAI GARAY
ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

# "Biniloen frikia naizenez, Azokan diskoak ikustea gozamena da"

**GOTZON GOMEZ BARRENETXEA** GEREDIAGA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Abenduaren 5etik 8ra bitartean, Gomezek hutsune bat ere ez du izango bere agendan. Nerea Mujikaren lekukoa hartuta, Gerediagako presidenteari dagozkion zereginak beteko ditu



Gotzon Gomez, Durangoko Azokan.

**Jone Guenetxea** DURANGO

Gerediaga Elkarteak eta Durangoko Azokaren bueltan lanean dabiltzan eragileek abenduaren 5etik 8ra jasoko dute urte osoan ereindako uzta. Azken urteetan, euskal kulturaren topalekua sasoi berrietara egokitu da. Aurten, Gotzon Gomezek "ezberdin" biziko ditu egun hauek, bere lehenengo azoka izango da-eta elkarteko presidente legez. Gomez ez da aspertzeko astirik duen horietarikoa. Buru-belarri dabil elkartegintzan. Durango Rugby Taldeko zuzendaritzako kide ere bada. Zurrunbilo horretan bete-betean sartuta, tartea hartu du ANBOTOren galderei patxadaz erantzuteko.

**Gotzon, azokan urte askoan lanean aritu arren, aurten ardura postu baten egongo zara, Gerediagako presidente legez. Ezberdin biziko duzu? Prest zaude zurrunbiloan sartzeko?**

Postuak beste ardura bat eskatzen du, beste rol bat da, baina ilusio handiz nago, gogotsu azoka hasteko.

**Zeintzuk nobedade ikusiko ditugu azokan?**

Aurtengoa urte borobila dugu. Elkarteak 60 urte egin zituen maiatzean, eta azokak berak ere 60 urte egiten ditu. Horrelakoetan, gauza bereziak egiten ahalegintzen gara. Nobedadetariko bat gaueko kontzertuak berreskuratea izango da, barikuan zein zapatuan. Horretarako, autobus zerbitzu berezia ipiniko dugu: Autobus batzuk Bermeotik irtengo dira (Bermeo-Gernika-Durango), beste bazuk Baionatik (Baiona-Donostia-Durango), eta Gasteiztik eta Iruñetik ere bai.

Gaueko kontzertuen sarrera barne, 10 euro ordaindu beharko da autobus bidaia. Aukera ederra da gazteak etorri daitezen, eta hain gazteak ez direnentzat ere egokia da, euren herri edo hirietara seguruago bueltatzeko.

**Azokako guneetan kultur adierazpen anitzak ezagutzeko aukera dago, baita nobedadeak ere. Espazio berriak ezagutuko ditugu aurten. Zeintzuk dira?**

Berbagailua gune berriak podcastekin du lotura. Madalenako ermitan egongo da. Gune hori azokarako erabilgarri izatea lortu dugu. Bestalde, Durangoko Arte eta Historia Museoa Atartea bihurtuko dugu. Gune honetan, ilustrazioak eta arte plastikoekin zerikusia duten adierazpenek izango dute lekua. Era berean, Musika Eskola obretan egon da azken urtean, eta aurten erabilgarri izango dugu Ahotseneko aurkezpenak eta beste ekitaldi batzuk antolatzeko.

**Azoka egun jakin batzuetan egiten da, baina zelan koordinatzen duzue antolaketa?**

Jente askok uste du uda ostean hasten garela hau antolatzen, baina ez da horrela. Azoka, berez, urte osoko lana da. Azoka amaitzen denean, pare bat astean arnasa apur bat hartzen dugu, eta lasterrera balorazioa egiten da koordinazio taldeagaz. Aldi berean, zuzendaritza batzordean ere ebaluazioa egiten da. Eta, martxorako, jada martxan ipintzen da hurrengo urteko dinamika. Beraz, gelditzen ez den errobera bat da hau. Edizio bat amaitzen denean, hurrengoari begira hasten gara: Sormen Bekarako zein gai edo zein diziplina landuko dugun, zein nobedade berri posible egon daitezkeen, diseinu berriak...

**'Durangoko Azoka Kulturaren Jaialdia' izena hartu du aurten. Zer hausnarketa dago horren atzean?**

60 urte hauetan gauzak asko aldatu dira. Andra Mariko arkupeko azoka ekitaldi xumea zen, iraultzailea. Hortik merkatu plazara pasatu ginen. Hemen ere, gogoratzen baduzue, stand batzuk ipintzen hasi ginen... eta gero Landakora pasatu zen. Gaur egun anbulatorioa dagoen eremu horretan izan zen. Orain hogei bat urte, Landako Gunea sortu zen. Apurka-apurka beste gune batzuk sortzen joan dira, eta horiek aberastu egin dute azoka. Jada, ez daude bakarrik liburuak eta diskoak. Orain denerik dago: musika zuzenean, ikus-entzunezkoak, antzezlanak, podcastak, arte plastikoentzako guneak... Diziplinak zabaltzen joan dira. Ez da azoka bakarrik, orain kultur adierazpena bera bultzatzen da. Sortzaileekin berba egiten eta euren beharrizanetara egokitzen ahalegintzen gara.

**"IZASKUNEN HERIOTZA KOLPE ITZELA IZAN DA. HUTSUNE HANDIA SENTITU DUGU"**

**"GAZTEAK ERE DATOZELA. MAKINA BAT GAUZA DAGO AZOKAN EURENTZAT"**

Eta hortik dator 'Kulturaren Jaialdia' izena. Benetan sentitzen dugulako lau egunean hemen egiten dena jaialdi bat dela. Lelo polita da egiten duguna islatzeko.

**Musikazalea, irakurzalea... zein profil daukazu zuk?**

Musikazale amorratua naiz, eta irakurzalea ere bai. Azokan aukera bikaina izaten dut hainbat lan deskubritzeko. Gainera, biniloen frikia naiz... Gozamen hutsa da diskoak deskubritzea. Esaterako, Jotakie taldearenak, Itoiz taldearenak, Benito Lertxundirenak... Aukera ederra da azken ekoizpenak ezagutzeko ere; adibidez, Añube eta Glaukoma taldeenak. Hor, askotan, alabaren laguntza izaten dut, bera ere musikazalea da eta.

Liburuen artean ere ibiltzen naiz. Normalean, zerrendatxo bat ekartzen dut eta begira

ibiltzen naiz, ez hainbeste nobedadeak. Orain, gaztetan irakurri nituen liburu batzuk irakurtzen nabil, baina beste modu batean dastatuz. Garai lasaia bizitzen nabil, irakurri egiten dut, beste input batzuk jasotzen ditut. "Aspaldi irakurri nuenean, ez nuen, ba, modu honetara ulertu!", esaten diot batzuetan neure buruari. Batzuetan, unibertsitaterako irakurri beharreko liburuak ziren, eta horregaitik irakurtzen zenituen.

**Nork eragin dizu gehien euskal kultura bizitzeko eta ulertzeko moduan?**

Etxean txikitatik jaso dut euskaragazko lotura, amaren partetik. Eskolako maistra Bego Urizar ere aipatuko nuke, eta baita Azkorbe ere. Beraz, eurek ere eragina izan dute nigan euskararako hurbiltze horretan. Gero, Euskal Filologia ikastea erabaki nuenean, horrek beste gogoeta bat ekarri zidan: gurea zaintzeko, gurea zabaltzeko, lehenengo ezagutu egin behar da.

**Gotzon, Gerediagan kolpe handia izan da Izaskun Ellakuriagaren heriotza. Zelan bizi duzue azokaren antolaketa bera barik?**

Izaskunen heriotza kolpe itzela izan da. Hutsune handia sentitu dugu elkartean, eta baita lantaldean ere. Presidente izendatu ninduten unean, Izaskun izan nuen bidelagun prentsaurrekoak emateko orduan, telebistara joateko orduan... Alde horretatik, maila pertsonalean apur bat umezurtz sentitu nintzen. Presidente kargua hartzerakoan, Izaskun nire gidaria izan zen. Laguntza eta animo asko ematen zidan, prentsaurrekoetan zelan berba egin irakasten, zein ikuspuntu eman, eta horrelako eginbeharrei zelan aurre egin.

Elkarte legez ere umezurtz geratu gara. Argi dago bera ordezkatzea ezinezkoa dela. Izaskunek zituen dohainak, gaitasuna, gogoa... Ahal dugun neurrian lan hori egiten jarraituko dugu, beste estilo baten, beste modu baten. Lantaldean ez dugu Izaskun sekula ahaztuko, eta, zelan ez, edizio honetan tartea hartuko dugu bera gogoratzeko.

Elkartearen izenean omenaldia egin genion eta gustura geratu ginen, jende asko joan zelako. Bere ibilbidea gogoratzeko eta bera beti gogoan izateko antolatu genuen omenaldia. Urte asko eman zituen azokan; dena kontrolapean zuen.

**Amaitzeko, zer mezu bidali gura diezu azokara joateko asmoa dutenei? Zer aurkituko dute bertan?**

Denok gonbidatuta zaudete. Aukera itzela da gozatzeko, dastatzeko, berritasunak ezagutzeko, eta, batek daki, baita antzinako edo aspaldiko produktuak ere erosi ahal izateko edo eskuratzeko.

Eta, bestetik, azoka kulturaren jaia dela gogoratu gura dut. Aukera asko eskaintzen du eta beti egongo da zeozer norberaren gustuetara egokitzen dena. Beraz, zatozte eta gozatu. Durango, gainera, leku itzela da ibiltzeko. Gazteak ere datozela. Eurentzat ere makina bat gauza dago, kuriosoak asko, ikusteko, entzuteko eta dastatzeko.

Ikusi bideoa

## Mintzodromoa bai, Hikadromoa ere bai


Taupak antolaturiko mintzodromo bat. TAUPA

Euskararen mintzapraktikak leku propioa izango du Durangoko Azokan. Taupa mugimenduak eta Zirhika elkarteak asteburu osoko egitaraua prestatu dute hizkuntzaren erabilera bultzatzeko.

**Barikua: gazteria berriketari**

Barikuan, ikasle goiza dela aprobetxatuta, mintzodromo ibiltaria egingo dute. Gazteak Maristak ikastetxearen ondoan batuko dira, 12:00etan, Udal Euskaltegia izandako eraikinean. Handik, musika-jartzaile bat lagun, Durangon zehar mugituko dira, geldiunerik geldiune mintzapraktika saioa egiteko. Luma Otaño eta Ianire Atxurra sare sozialetako eragileak bidelagun izango dituzte. Eguraldiak laguntzen ez badu, mintzapraktika Udal Euskaltegia izandakoan egingo dute.

**Zapatua: hitanozaleen txanda**

Zapatuan, Landako Eskolak Euskal Herriko Hikadromoaren bigarren edizioa hartuko du. Ikastetxeko jantokira doazenek hitano hutsez egingo dute berriketan. Pintxo-jana egingo dute lehenengo (14:30) eta berriketa-ariketak gero (15:30). 17:00etan amaituko dute, ordu horretan bertso saioa izango dute-eta Amaia Agirreren eta Andoni Egañaren eskutik. Bistakoa denez, hitanoz hori ere. Kristina Mardaras iurretarra da Hikadromoa koordinatzen dabilen kideetariko bat.

**Domeka: topaketa nazionala**

Domekan, Euskal Herriko Mintzalagunen Topaketa egingo dute Durangon. 11:30ean ipini dute hitzordua, Landako Gunearen ondoan. Ugaitz Alegriak eta Ainhoa Etxebarriak egingo dituzte gidaritza lanak. Hori horrela, mintzalagunak Landako Eskolako jantokian batuko dira, 12:00etatik 14:00etara. Hortik aurrera, parte hartzaileek aukera bi izango dituzte: mintzodromoan aritzea edo Irudieneko emanaldi bat ikustea. Amaieran, bazkarimokadua egingo dute, baita kalejira ere Landako Gune barruan.

## Eixuren azoka Andra Mariko elizpean

Durangoko Azokak dakarren kultur mugimenduaren zurrunbiloan, Eixu elkarteak artisauen eta sortzaileen lekua aldarrikatuko du. Abenduaren 5etik 8ra, artisautza azokaren bederatzigarren edizioa egingo dute Andra Mariko elizpean; sorkuntza lanak "saltzetik harago" egingo dute azoka, gainera: "Mezu argi bat zabaldu gura dugu: artisautza ez da zaletasun huts bat, ogibide duin eta profesional bat baino", esan dute elkarteko kideek. Hori horrela, artisautzatik bizitzea "geroago eta gatxagoa" dela esan dute, eta ezinbestekotzat jo dute elkartearen lana, sektorea indartzeko zein esperientziak partekatzeko. Aurtengo edizioan arlo hauetako artisauak egongo dira Andra Mariko elizpean: zilarra, makramea, larrua, burdin lanak, egurra, ilustrazioa, ehungintza, koadernaketa, zeramika eta artilezko lanak. Elkarteak azaldu duenez, Gabonen atariko azoka izatera, hitzordua "garrantzitsua" da. "Durangoko plaza berezia da guretzat: gure lanaren erakustokia da eta egiten dugun ahaleginaren, konpromisoaren eta pasioaren aitortza jasotzeko gunea", adierazi du elkarteak.

Energia eredua aldatzera goaz. Bazatoz?
Abenduaren 11n 18:30ean San Agustinen
Durangoko Energia Komunitatearen aurkezpena
Durangoko energia komunitatea


Osasun Saileko, Osakidetzako eta Durangoko Udaleko ordezkariek joan zen astean aurkeztu zuten aurreproiektua.

# Durangoko osasun zentro berrirako plana, martxan

Osasun Sailak Gaitasun Handiko Osasun Zentroaren aurreproiektua aurkeztu du. Usansoloko hainbat zerbitzu ipini gura dute bertan: mamografiak, OTA, erretinografia eta erresonantzia magnetikoak egiteko zerbitzuak, besteak beste

**Ekaitz Herrera** DURANGO
Behin-behineko plana aurkeztu dute, baina aurrera begirako ezaugarri irmoak jaso dituzte bertan. Osasun Sailak eraikin bakar batean batu gura ditu gaur egun Durangoko hiru lekutan eskaintzen diren zerbitzuak: Landakokoak, anbulatorio zaharrekoak eta Madalenako buru osasuneko zentrokoak. Eta leku bateratu horretan eskaini gura dituzte orain arteko zerbitzu guztiak gehi beste hiru berri: erradiodiagnostikoa, hau da, mamografiak, OTA direlakoak (Ordenagailu bidezko tomografia axiala) eta erresonantzia magnetikoak egiteko zerbitzua; erretinografia, begiko osasunari loturikoa, eta esku-hartze azkarreko ibilgailu medikalizatua. Alberto Martinez osasun sailburuaren berbetan, instalazio berriak 10.500 metro koadroko azalera izango du. Lurpeko aparkalekua ipintzeaz gainera, beheko solairua eta beste solairu bi altxatu gura dituzte. Gainera, Lore Bilbao Osakidetzako zuzendari nagusiak esan duenez, osasun zentro berriak "pertsonal gehiago" izango du egungo hiruren aldean. Mireia Elkoroiribe alkateak esan duenez, proiektua "garrantzitsua" da Durangorentzat eta eskualdeko herritarrentzat. "Aspaldi genbiltzan honen atzetik. Ez dago zalantzarik: proiektu honek Durangoko eta eskualdeko osasun arreta eta bizi-kalitatea hobetuko ditu", nabarmendu du.

Zentroak Durangaldeko hainbat herritarri eskainiko die arreta: durangarrei, abadiñarrei, berriztarrei, elorriarrei, iurretarrei eta zornotzarrei. Horrez gainera, Lea-Artibaiko hainbat herritarri ere emango die arreta. Zehaztu dutenez, ondarroarrei eta markinarrei. 95.000 biztanleko eremu geografikoa, guztira. Aldaketa esanguratsurik ezean, urte batzuk joan beharko dira zentro berria Ezkurdi ondoan ikusteko. Oraingoz, Eusko Jaurlaritzak proiektua idatziko du: 500.000 euroko diru atala prestatu du horretarako. Hortik aurrera, urte bi izango dituzte proiektua diseinatzeko, eta tarte horretan Durangoko Udalak azpiegiturarako orube administratiboa prestatuko du. Alkateak azaldu duenez, Plan Orokorreko arau subsidiarioak moldatuko dituzte.

# "Energia komunitatearen aukerak azalduko ditugu"

Abenduaren 11n Durangoko energia komunitatearen proiektua aurkeztuko dute. San Agustin Kulturgunean izango da, 18:30ean hasita. Alvaro Etxarte komunitateko kide bat da eta Durangoko egitasmoaren helburuak eta nondik norakoak azalduko ditu

**Joseba Derteano** DURANGO
**Zein izan da orain arteko bidea?**
Gizartean bazegoen ekologiagazko ardura bat, baina ez genuen baldintzarik ikusten kontzientziatik ekintzetarako saltoa emateko. Durangon, talde batek gune hori sortzeari ekin genion, beste herri batzuetan ere energia komunitateak eratzen zebiltzala ikusita. Askotariko elkarte eta eragileekin batu ginen, saretzeko helburuagaz, eta berbaldi bat antolatu genuen zenbait lekutako esperientziak ezagutzeko. Piztu Durango dinamika parte hartzailearen barruan, bost formakuntza saio egin genituen. Azken hori Goierregaz diseinatu genuen, eta autokontsumoari, energia komunitatearen egiturei eta proiektuak hartu dezakeen izaera juridikoari buruz aritu ginen, besteak beste.


Alvaro Etxarte.

**Zergaitik dira garrantzitsuak horrelako egitasmoak, eta zeintzuk dira helburu nagusiak?**
Krisi ekosozial batean gaudela ebidentzia zientifiko bat da. Horren ertzetariko bat aldaketa klimatikoa da, eta horren kausa nagusietarikoa $CO_2$aren gehiegizko isuria. Hori eskala guztietan murriztu behar da eta herritar legez komunitate energetiko bat sortuta egin dezakegu gure ekarpena. Hiru helburu nagusi ditugu: energia kontsumoa murriztea, kontsumitzen den energia berriztagarria eta ahalik eta gertuen sortua izatea, eta gure jabetzako energia izatea. Hau da, proiektu hau energia sistema demokratizatzeko saiakera bat ere bada: energia gure kontrolpean egotea eta komunitatearen irizpideen arabera kudeatzea. Durangaldean ildo honetako ekimen gehiago dago, Abadiñon, Elorrion eta Otxandion, eta batek daki, beharbada hemendik urte batzuetara sarea handitu ahal izango dugu.
**Zer aurkituko du San Agustineko aurkezpenera doanak?**
Energia komunitatearen aukerak azalduko ditugu. Ondoren, autokontsumoaz eta bere onurez arituko gara: ingurumenari ekartzen dizkion onurez zein onura ekonomikoez. Gero, diseinatzen gabiltzan proiektuen berri emango dugu, hala nola aholkularitza energetikorako bulegoa zabaltzea eta gure lehenengo instalazio fotoboltaikoaren egungo egoera. Azkenik, proiektura zelan batu eta bertan zelan bazkidetu azalduko dugu.

## Sarek 'Etxera Kantuz' topaketa egingo du domekan, Durangon

**E.H.** DURANGO
Sarek *Etxera Kantuz* topaketa herrikoiaren bigarren edizioa egingo du domekan, "euskal preso, iheslari eta deportatuek pairatzen dituzten salbuespen egoerak" salatzeko eta "gatazkak eragin dituen ondorio guztiei irtenbidea" eskatzeko. Ekitaldia Landako Gunearen kanpoaldean egingo dute, 12:00etan. Xiberoots taldeak emanaldi akustikoa egingo du lehenengo, eta Unai Iturriaga bertsolariak hainbat kulturgilek sinatutako adierazpena irakurriko du ondoren. Azkenik, Bego Atxa Sareren bozeramaileak berba egingo du. Ekitaldiaren amaieran, han baturikoak kantuan joango dira Landako Gunetik Alde Zaharrera. Hainbat geldialdi egingo dute bidean.

Sarek "bakearen, elkarbizitzaren eta konponbidearen behin betiko agertokia" aldarrikatu du, eta herritarrak domekako ekitaldira eta kantaldi saio ibiltarira bertaratzera deitu ditu.

# Pintaketak egin dituzte ETAren biktimen plaketan

Durangoko Udalak bederatzi plaka ipini ditu herriko kaleetan, ETAk udalerrian hildako biktima bakoitzaren omenez. Joan zen astean egin zuten aitortza ekitaldia. Asteon, aitortzatik egun gutxira, 'Gora ETA' dioten mezuak agertu dira hiru plakatan

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, ezezagun batzuek pintaketak egin dituzte ETAren biktimen omenezko plaketan. Oroigarriok kalean ipini eta egun gutxira agertu dira pintaketak, bederatzi plaketatik hirutan. "Gora ETA" mezuagaz agertu dira. Udal gobernu taldeak "onartezintzat" jo du ekintza eta "gaitzespen irmoa" adierazi du. Era berean, plaka bandalizatuak ahalik eta lasterren garbitzeko eskaria egin du, eta herritar guztiak deitu ditu memoria historikoagazko errespetuzko jarrera izatera eta "gorrotoa eta indarkeria bultzatzen dituen edozein ekintza" arbuiatzera.



Pintaketa bat biktimetariko baten omenezko plakan.

Plakek egun gutxi daramate herriko kaleetan. Durangoko Udalak ipini zituen joan zen astean, ETAk udalerrian hildako bederatzi biktimen omenez. Oroigarri bakoitza biktima hil zuten tokian dago, zoruan, pertsonaren izen-abizenak eta *ETAk eraila* dioen testua idatzita dituela. Plakek biktima hauek gogoratzen dituzte: Epifanio Benito Vidal Vazquez, Damaso Sanchez Soto, Jose Mari Urquizu Goyogana, Sergio Canal Canal, Jose Antonio Merenciano Ruiz, Jesus Hernando Ortega, Pedro Ballesteros Rodriguez eta Jesus Maria Pedrosa Urquiza.

Oroigarriok ipintzeko erabakia gobernu taldearen eta PPren arteko akordioaren zati da, 2025eko aurrekontu-itunari loturikoa.



San Faustoko Kapitanena baserriak 100 urte baino gehiago ditu.

## Kapitanena baserriari bizi berri bat ematea erabaki dute

Durangoko Udalak behin betiko onartu du San Faustoko baserrian auzotarrentzat gizarte etxea atontzeko proiektua

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Jirabira askoren eta protesta ekitaldi bat baino gehiagoren ondoren, Kapitanena baserriak etorkizun argiagoa du zerumugan. Durangoko Udalak baserria eraberritzea onartu du behin betiko, eta 900.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egingo du, bertan San Faustoko auzotarrentzat gizarte etxea egiteko. Udal ordezkariek azaroko osoko bilkuran onartu zuten proiektua.

Proiektuak zati bi ditu: baserria bera eta haren aldamenean altxatuko duten eraikin osagarria. Lehenengoan, bilera gelak, irakurketa eta ikasketa gela, komunak eta biltegia atonduko dituzte; bigarrenean, erabilera anitzeko gela eta kanpo-eremu estalia. Eraikin biak kontuan hartuta, azalera erabilgarri osoa 200 metro karratukoa izango da. Aurreproiektua Aiert Buruaga arkitekto durangarrak egin du.

Oraingoz, Durangoko Udalak 100.000 euro erabiliko ditu proiektua idazteko, eta behin hori eginda, beste 833.000 baliatuko ditu obrak finantzatzeko. Azken horiek datorren urteko azken hiruhilekoan hasi gura dituzte.

## Gaitasunak askotarikoak direla aldarrikatu dute Durangon

Geu Bek Aniztasun Funtzionalaren Nazioarteko Eguna ospatu eta aldarrikatu zuen eguaztenean, Andra Marian



Geu Bek aldarrikapena eta umore ona konbinatu zituen eguaztenean.

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Abenduaren 3a oso data seinalatua da Durangoko Geu Be elkarteko kideentzat, egun horretan aldarrikatzen dute-eta Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Nazioarteko Eguna. Aurten ere, elkarteak ez dio hutsik egin hitzorduari: eguazten arratsaldean, Andra Mariko elizpean batu ziren pertsonen gaitasunak askotarikoak direla kaleratzeko. Ohiko eran egin zuten hitzordua, umorez eta eskuzabaltasunez. Gabonetako eskulanen tailerra, margoketa tailerra eta txapa-tailerra egin zituzten, eta, horrez gainera, urtero legez, txokolate beroa banatu zuten bertaratu ziren herritarren artean. Azken horretan, Saltsan catering etxeko kideek parte hartu zuten.

## Kantulagunen edizio berria prestatzen hasi dira Garain

Nagusien elkarteak entsegu sorta prestatu du hilaren 19ko ekitaldira eztarria ondo berotuta heltzeko

**Ekaitz Herrera** GARAI

Garaiko nagusien elkarteak Kantulagun egitasmoaren edizio berria antolatu du. Abenduaren 19an egingo dute emanaldia, Olentzero eta Mari Domingi udalerrira ailegatu aurretik, eta jada hasita daude entseguak egiten. Abenduaren 11n egingo dute hurrengo prestaketa saioa, eta jardunaldi hori izango da, hain zuzen ere, azkena. Azken entsegua kultur etxean egingo dute, 19:00etatik 20:00etara. Aurrerago emango dute abenduaren 19ko emanaldiaren xehetasun gehiago.



**Uztaileko Kantulagun.** GARAIKO NAGUSIAK

# Kurutziagako biribilgunearen lehenengo urratsak hurbilago

2026erako aurrekontuetan Kurutziagako biribilgunearen proiektua tramitatzeko lehenengo urratsak eman gura dituzte, 2027an gauzatu ahal izateko. Aurrekontuetako beste ardatz bat etxebizitza sozialaren inguruko aurrerapausoak ematea da

**A. M.** ELORRIO

Inoizko aurrekonturik handienak onartu dituzte Elorrion 2026rako, 10.826.295 eurokoak. Iazkoak udalean ordezkaritzarik handiena duten talde bien akordioagaz onartu bazituzten ere, adostasunak gutxi iraun du. Datorren urtekoak EH Bilduren eta Elkarrekin-Podemosen aldeko botoekin onartu dituzte; EAJk aurka bozkatu zuen. "Aurrekontuek herritarren behar errealak asetzeko tresna izan behar dute; horregaitik, 2026koek izaera sozialeko arloak indartzen dituzte. Horrez gainera, etorkizunerako garrantzitsuak diren gai bi nabarmendu dituzte: Kurutziagako biribilgunearen proiektua tramitatzeko lehen urratsak, 2027an gauzatu ahal izateko; eta etxebizitza sozialaren inguruko aurrerapausoak: Goietako alokairu-sozialerako etxebitzitzen amaiera, etxebitza hutsen inguruko azterketa eta Elorrio tentsio-gune izendatzeko prozesuan sakontzea", argudiatu zuen Maria Herrero Ogasun Saileko arduradunak osoko bilkuran.



Osoko Bilkurako irudi bat.

**Irazabalen dimisioa**

Bestalde, udalak "tamalgarritzat" jo du EAJgaz akordioa ez berrestea, elkarrizketarako gonbidapena "zabalik dagoela" azpimarratu duen arren. Osoko Bilkura berean, Oier Irazabal Celaya EAJko zinegotziak dimisioa eman zuen, arrazoi pertsonalak argudiatuta.




Artxiboko irudi bat.

# Bihartik aurrera, Buzkantz Jaia ospatuko dute Elorrion

Herriko tradizio eta jai gastronomikorik maitatuenetarikoa ospatuko dute asteburuan Elorrion: Buzkantz Jaia

**A. M.** ELORRIO

Asteburuan Buzkantz Jaia ospatuko dute Elorrion. Hilaren 6an hasiko dute egitaraua, zapatuan, odoloste pintxo eskaintza bereziagaz. Parte hartzaileek odolostearen inguruko tradizioa eta gastronomia ezagutzeko eta partekatzeko aukera izango dute. Zubiertz, Mai, Batzokia, Portalekua, Bikale, Tanger, Xelai, Parra eta Urreberri tabernek parte hartuko dute ekimenean. Biharamunean, Buzkantz dastatzea egingo dute herriko lau elkarte gastronomikotan. Txartelak Turismo Bulegoan ipiniko dituzte salgai, eta dastatzea 12:00etan hasiko da. Iaz 400 bat lagunek parte hartu zuten. Zortzi euroan salduko dituzte txartelak, eta lau pintxo jateko aukera emango du, ardoagaz edo uragaz batera. Txartelak 10:00etatik 13:00etara salduko dituzte bulegoan, eta botoa ere bertan emango da, 14:45ak arte.

Jaia abenduaren 9an amaituko da, odoloste lehiaketaren sari banaketagaz. Ekitaldia 13:30ean izango da, Iturri kultur etxean. Iaz, Akebaso Berria harategiak eraman zuen garaikurra.

# Ia 150.000 euro erabiliko dituzte asfaltatze lanetarako Berrizen

Udalak martxan ipini du Berrizko kaleak eta sarbide industrialak hobetuko dituen asfaltatze plana



Lanetariko batzuk Skate park inguruan egingo dituzte.

**A. M.** BERRIZ

Berrizko Udalak herriko hamalau gune asfaltatzeko plana martxan ipini du. Herrigunean eta Eitua industrialdean egingo dituzte lanak. Udalak 146.492 euroko inbertsioa egingo du guztira, eta lanak hilabeteko epean amaitzea aurreikusten dute. Leku hauetan egingo dituzte konponketak: Abeletxe auzoan, Zengotitabengoa kalean, Padura zeharkalean, Geltoki kalean, Maturana etorbidean, Iturritza kalean, Olakuetako aparkalekuan, Berrizburuko skate pistaren pareko zelaigunean eta Eitua industrialdeko hainbat puntutan. Inforlur enpresak 2025ean idatzi zuen proiektua, eta hasieran 184.918 euroan lizitatu zen arren, azkenean Asfaltos Uribe enpresari lizitatu diote, 38.000 euro gutxiagogaitik, Berrizko Udalaren esanetan.

# 500 gaztek baino gehiagok parte hartu dute 'I'm Bizi' programan

Aurten Zornotzan egin dute Durangaldeko gazteei euren etorkizun profesionalean laguntzeko topagunea

**A. M.** ZORNOTZA

*I'm Bizi* programaren barruan, 500 gazte baino gehiago batu ziren Zornotzan; Durangaldeko 4. DBH mailako ikasleek parte hartu zuten Zelaieta Zentroko frontoian egindako ekimenean. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Durangaldeko udalerriek Bizkaia Gazteak 2030 estrategiaren barruan kokatzen dute ekimena, eta gazteen enplegagarritasuna, autonomia eta parte hartzea ikuspegi praktiko eta errealista batetik landu zuten, jardunaldi bitan. Antolatzaileek eskualdeko enpresa eta erakundeen inplikazioa ere nabarmendu dute. "Gazteek zuzenean ezagutu ahal izan dituzte lan merkatuaren erronka nagusiak, profilen eskaera eta behar diren gaitasun nagusiak", esan zuten. Horrez gainera, *I'm Bizi* Bizkaian "erreferentziazkoa" dela nabarmendu zuten. "Erakundeen, hezkuntza zentroen eta tokiko enpresa sarearen arteko lankidetza bultzatzen du, gazteei euren ibilbideko une pertsonal garrantzitsu batean laguntzeko", gaineratu zuten.

# GREMIOEN GIDA

## Zurgintza

leike
Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK




www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

## Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

## Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

## Elektrizitatea

ELECTRICIDAD JON
622 684 284
electricidadjon@outlook.es

## Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

## Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA
659 673 790
unaigaray@yahoo.es



anboto kide

Anbotokideen txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Alcamporen eskutik Auchan produktuez osaturiko otzara.




Herri Urratseko abestien binilo bikotza.

Okm: batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!




Osoko bilkurako argazki bat.

# Abadiñok % 7,15 handitu du datorren urterako aurrekontua

EH Bilduk, Abadiñoko Independenteek eta PSE-EEk bozkatu dute 14.183.475 euroko aurrekontuaren alde

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

Abadiñoko Udalak 14.183.475 euroko aurrekontua onartu du 2026rako, 2025ekoa baino % 7,15 handiagoa. Kopuru horretatik 755.000 euro inbertsioetarako erabiliko dituzte, eta horri 2026an zehar diru-kutxako soberakinen bitartez aurrera eramango diren inbertsioak gehituko zaizkio. Lehentasunezko proiektuen artean, Atxarteko sarrerako bidea berreskuratzea, Irazolako auzotarrei udal ur hornidura sarea bermatzea, Urkiolako ur kaptazioak publifikatzea eta kirolguneak egokitzea daude.

Horrez gainera, 700.000 euro inguru diru laguntzetarako erabiliko direla jakinarazi dute. "Herriko eragileak ezinbesteko tresna dira Abadiñon herrigintza bizi bat bermatzeko. Gaur egun, 58 herri eragile inguru daude, eta horiek indartu egin gura ditugu", adierazi du udal gobernu taldeak.

Bestalde, gobernu taldeko alderdiek euren arteko adostasuna azpimarratu dute. "2026ko aurrekontuek azken urteetako adostasunik handiena izan dute, eta horrek aukera emango digu Abadiñoren etorkizuna era eraginkorragoan eraikitzeko. Aurrekontuak tresna garrantzitsua dira herriaren eta herritarren garapena ziurtatzeko eta euren beharrizanei erantzuteko", adierazi du udal gobernu taldeak. Era berean, gaineratu dute Abadiñoko Udala ez dagoela inongo zorpetze prozesuetan sartuta, eta, ondorioz, bere osasun finantzarioa ona dela.

Jeltzaleek aurrekontuen aurka bozkatu dute. "Inposatutako aurrekontu hauen kontra gaude. Guk zenbait proposamen egin genuen Abadiño hobetzeko, eta bat bera ere ez da jasotzen bertan", azaldu dute EAJkoek ohar baten bitartez.

# Liburutegiko lanak, amaituta

**M.Z.** MALLABIA

Mallabian amaitu dituzte udal liburutegiko lanak. Udalak jakinarazi duenez, lan hauek egin dituzte: harrerako mostradoreko altzari berria ipini, harrerako lurzorua ordezkatu, hormak margotu eta argiztapena hobetu. Lanak amaituta, liburutegia berriro zabalik dago, 16:00etatik 19:00etara.



MALLABIKO UDALA.

# EAJk funtsezko proiektuak aktibatzea eskatu du

**M.Z.** ABADIÑO

Mikel Garaizabal eta Iñaki Rekalde EAJko kideek jakinarazi dutenez, legegintzaldi hasieran hartu zituzten 36 proiektuetatik 12 gauzatu dira, eta beste 12 garatzeko bidean daude. Bestalde, gobernu taldeak gainerako 12ak kontuan hartu ez dituela esan dute. "Legegintzaldi hasieran, 36 proiektu zehaztu genituen herritarrekin. Horietatik 12 gauzatu dira dagoeneko, 12 garatzeko bidean daude eta egungo gobernu taldeak ez ditu beste 12ak jorratu. Gure ustez, hauek guztiak lehentasunezko proiektuak dira Abadiñoko segurtasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko", azaldu zuen Garaizabalek. Bestalde, udalerria hobetzeko ekimenetan aurrera egiteko beharra nabarmendu zuten: "Abadiño ezin da geldirik geratu. Lanean jarraitzen dugu irtebideak proposatzen".



Rekalde eta Garaizabal.

## 'Bakardade Ikusezina' erakusketa Mallabira heldu da

**M.Z.** MALLABIA

Ruben Orozco artista mexikarraren *Mercedes* eskultura hiperrealista Mallabira heldu da. Abenduaren 5etik 19ra bitartean, Mallabiko Udalaren laguntzari eskerrak, herriko bizilagunak 'Mercedes'-engana hurbildu ahal izango dira. *Barkardade Ikusezina* erakusketak banku baten eserita dagoen adineko emakume bat irudikatzen du, bakarrik, serio eta triste. Erakusketa osatzeko, udalak eta BBK-k jarduera bat antolatu dute gura bako bakardadeari buruz gogoeta egiteko. Abenduaren 10ean, 10:00etatik 12:00etara, bakardadeari buruzko mural bat sortuko dute liburutegian.


HERRI ETA AUZOETAKO JAIAK
ORTURAKO INFORMAZIOA
ILARGI FASEAK
DURANGALDEKO BASERRIAK
TENPORAK
Abuztua
2026
Durangaldeko egutegia
OHIKO SALTOKIETAN SALGAI
ABADIÑO Petite eta Abadiñoko estankoa
ATXONDO Itziar taberna
BERRIZ Egun on okindegia
DURANGO Etxebarria prentsa denda eta Hitz liburudenda
ELORRIO Txokolat
GARAI Herriko taberna
IURRETA Iurreta kopistegia
IZURTZA Herriko taberna
MAÑARIA Herriko taberna Taska
MALLABIA Herriko taberna
OTXANDIO Aspe estankoa
ZALDIBAR Imendia prentsa denda
ZORNOTZA Ayerdi prentsa denda
DA!
Durangaldeko standean salgai

# Atxondoko azokak 30 bat postu batuko ditu domekan

Aurtengo edizioan, udalak ahalegin berezia egin du lehen sektoreko postuen presentzia handitzeko. Horrela, arlo horretako postu gehiago egongo da aurten, Apatako plaza inguruko jai-giroa bultzatzeko. Jan-edanerako aukera egongo da

**Joseba Derteano** ATXONDO

Atxondon Nekazaritza eta Artisautza Azokaren beste edizio bat egingo dute datorren domekan, abenduaren 7an. Azoka 11:00etan hasiko da, eta, guztira, 30 bat postu bilduko ditu: 14 bat nekazaritza arlokoak, Apatako plaza nagusian, eta beste 17 artisautzakoak, farmaziaren ondoko plazan.

Aurtengo edizioan, udalak "ahalegin berezia" egin du lehen sektoreko postuen presentzia handitzeko, ohar baten azaldu duenez. Helburua honako hau da: plaza inguruko jai-giroari bultzada ematea eta herritar zein bisitarientzat inguruko produktuez gozatzeko gune bizi bat sortzea.


Nekazaritzako postuak plaza nagusian egongo dira; artisautzakoak farmazia ondoko plazan.

Horretarako, jan-edanerako hainbat postu egongo da plazan: garagardo postua, sagardo eta sagar zuku postua, gazta postua eta Atxondoko Talogileen postua (udaletxeko aterpean), besteak beste. Horrela, gazta pintxo bat edo talo bat jaten den bitartean, trago bat hartzeko aukera ere egongo da. Barazkien postuak ere izango dira tokiko ekoizleen eskaintzan. Hainbat ekoizle herrikoak izango dira, Atxondokoak bertakoak, eta beste batzuk Durangaldekoak. Artisautzako postuei dagokienez, belarritako, arropa, bitxi eta koadroen ingurukoak etorriko dira, eskaintza zabalaren barruan. Artisautzan ere izango da Atxondoko ordezkaritza.



Gazta, gozogintza eta garagardo postuak egongo dira, besteak beste.

## Izurtzan Nikolas Azoka egingo dute zapatu honetan

Hamabi bat postu batuko dira frontoian. Eguerdian oilasko pintxoak jateko aukera egongo da

**J.D.** IZURTZA

Nikolas Azoka urteroko hitzordu bihurtu da Izurtzan. Urtero legez, abenduaren 6an egingo dute, zapatu honetan, 11:00etan hasita.

Aurten hamabi bat postu egongo dira pilotalekuan. Postuetan denerik egongo da: gazta, garagardoa, gozogintza, patea... Udalak euro bateko deskontu txartelak atera ditu herritarrentzat, postuetan erosketak egiteko.

Jan-edanerako aukera ere egongo da eguerdian; Eusko Labeleko oilasko pintxoak egongo dira. Iazko bideari jarraituta, aurten ere Angelman Sindromea elkarteak hartu du ekimenaren ardura. Horrela, salmentagaz ateratako dirua elkartearentzat izango da. Aurten, 2,5 euro izango da pintxo bakoitzaren prezioa. Urtero legez, Izurtzan erroldatuta daudenek doan eskuratu dezakete mokadua. Txartelak udaletxean daude eskuragarri.

Angelman Sindromea elkarteak lotura estua du Izurtzagaz. Azkenengo urteetan, elkarte honetako kideek kudeatu izan dute herriko jaietan Santa Ageda ermitan ipintzen den taberna.

## 'Tresnak eta Natura' erakusketa ikusgai Hontza Museoan

Osagai naturalez egindako eguneroko zein aparteko objektuak daude aldi baterako proposamen berrian


Erakusketan dauden objektuetariko batzuk. HONTZA MUSEOA

**J.D.** MAÑARIA

Mañariko natur-zientzien Hontza Museoan martxan da aldi baterako erakusketa berria. Naturako osagaiekin egindako eguneroko zein aparteko objektuen aukeraketa berezi bat egin dute oraingoan. "Giza kulturaren eta sormenaren adibide paregabea da. Erakusketak aukera ematen du naturak artearen eta funtzionaltasunaren garapenean zelan eragiten duen ezagutzeko, objektu bakoitzaren bitartez bere istorioa kontatuta", azaldu dute museoko arduradunek ohar batean.

Erakusketa horrez gainera, museoan arlo askotako beste 3.000 pieza inguru ere badaude. Museorako bisita aurretik hitzartu gura duenak Hontza Museoaren webgunean du horretarako aukera.

## Euri-urak batzeko kanalizazio berria Mañariko hilerrian

Aurrerantzean teilatuko ura errekara bideratuko dute kanalizazio sistema berritik zorura jausi beharrean

**J.D.** MAÑARIA

Mañariko Udalak hilerriko teilatuko euri-urak batzeko kanalizazio-sistema ipini du. Sare berria da, orain arte ez zegoelako halakorik, eta lurpetik bideratu da ibairaino hilerriko lurra dagokion baino ur gehiagogaz ez kaltetzeko. Obra hauek hilerria hobetzeko lanen barruan sartzen dira. Izan ere, txosten geoteknikoaren ondorioetan adierazten zenez, teilatuetako ura zuzenean lurrera isurtzea zen nitxoak dauden lekuan izandako ezegonkortasunaren arrazoietako bat.


Hilerria kanalizazio berriagaz.



Zaldibarko Koral Elkarteko kideak, sanandresetako txapligua bota berritan.

# "Korala Zaldibarko kulturaren gorputza eta arima izan da"

**ESTHER HERNANDEZ ETA ANTXON BURGOA** ZALDIBARKO KORAL ELKARTEA

Zaldibarko Koral Elkarteak 80 urteko ibilbidea bete du aurten, eta efemeride horregaitik abesbatzak izan du aurtengo sanandresetako txapligua botatzeko ardura. Joan zen barikuan jaurti zuten, herriko plaza bete-beterik zegoela

**Ekaitz Herrera** ZALDIBAR

ANBOTO Zaldibarko Koral Elkarteko kideekin batu zen joan zen barikuan, neguko jaien hasiera ekitaldian. Esther Hernandez zuzendariak eta Antxon Burgoa abeslariak erantzun diete galderei.

**Zelakoa dabil izaten 80. urteurrena?**

**Antxon Burgoa:** Ohore bat da guretzat. 81 urte dauzkat eta arnasa hartu nuenetik koralagaz batera bizi izan naiz modu batera edo bestera. Eta gaur egun hauxe darabilzu buruan: "Umeak akordatuko ote dira gaurko egunaz?".

**Zein da Koralak herriari egin dion ekarpena?**

**A.B.:** Lauroegi urte hauetan gauza asko gertatu da herrian, eta koralak beti egin du bere ekarpena. 75. urteurrena bete genuenean, argazki erakusketa handi bat egin genuen, eta bertan argi ikusi ahal izan zen Korala beti egon dela presente herriko aktibitate guztietan. Pilota taldeagaz parte hartu du, dantza taldeagaz, musika eskolagaz... Abesbatza gizonezkoena baino ez zen izan sasoi batean; gero misto bihurtu zen. Futbol taldearen oinarria koraletik sortu zen. Orduan, esan daiteke korala Zaldibarko kultur mugimenduko arima eta gorputza izan dela.

**Irudikatu daiteke Koralik bako Zaldibar?**

**Esther Hernandez:** Ezetz esango nuke. Hainbeste urteren ondoren, eragile garrantzitsua gara herrian. Ekiteko gogoz jarraitzen dugu, baina, egia esan, jende gutxitxo gaude orain. Giro ona dugu, sanoa, eta jendea gugana etortzera deitu gura dugu. Izan ere, gurea ez da aparteko konpromisoa. Astean behin egiten ditugu entseguak, eta astean bitan begibistan kontzerturen bat badago.

**A.B.:** Sanandresetan kontzertutxo bat eman dugu. Aspaldi abestu bako kantak berreskuratu ditugu bertan. Egia esan, Estherrek ederto baten zirikatzen gaitu. Akuilu lana egiten du, taldeak aurrera egin dezan.



Maiztegiko eskola komunitateak Iurretako udaletxeko udalbatza aretoa bete zuen.

# Tirabira Iurretan, Maiztegi eskolako jolastokia dela eta

Guraso Elkarteak azaroaren 26an aurkeztutako mozioak ez zuen aurrera egin EAJren kontrako botoak direla eta

**Aitziber Basauri** IURRETA

Iurretako Maiztegi herri eskolako jolaslekuaren gaiak bazterrak harrotu ditu azken asteotan. Maiztegi Guraso Elkarteak, jolastokirako proiektua "lehenbailehen" eta "era gardenean" gauzatu dadin, udalak 2022an adostutako pausoak betetzea gura du. Bada, azken osoko bilkuran, eskolagaz dituen konpromisoak "argitu" eta "bete" ditzan eskatu zion udalari. Mozioak EH Bilduren eta PSE-EEren babesa izan zuen arren, EAJk kontra bozkatu zuen eta ez zuen aurrera egin.

EAJk "elkarlanerako borondatea" berretsi zuen. Hala ere, udalaren eskumena ikastetxearen mantentze-lanetara mugatzen dela esan zuen. "Inbertsioak Jaurlaritzaren eskumena diren arren, udalak horietariko hainbat hartu du bere gain", esan zuten. 2016tik 2025era, gastu arruntetan eskolara 1,3 milioi eurotik gora bideratu direla esan zuten, eta eskolak antolatutako hainbat jarduera lagundu dela. Bestalde, argitu zuten jolastokirako proiekturako laguntzak % 80tik % 60ra jaitsiko zirela jakin ondoren moldatu zuela udalak egitasmoa. Azkenean, Jaurlaritzak diru laguntza ukatu dien arren, EAJk iragarri du diru partida bat lotuko duela txintxaunak konpontzeko.

Guraso elkarteak esan du Maiztegiko 320 umeek eskubidea dutela eskola "duin" eta "segurua" izateko, eta erakunde publikoek bermatu egin behar dutela hori. Eskola "benetako lehentasun" izatea eskatu du, eta mantentze-lan eta inbertsio "behar larriak" daudela gogoratu. EH Bilduk kritikatu egin zuen proiektuaren gauzatzea "finantziazio berme bat" izan barik iragartzea. "Komunikazioa falta da arazoei erantzuteko", nabamendu zuen PSE-EEk.

# Otxandion auzo konpost gune guztiak berriztu dituzte



Konpost gune berriak. OTXANDIOKO UDALA

**A.B.** OTXANDIO

Udalak Otxandioko zazpi auzo konpost guneak berriztu ditu. 68.300 euroko inbertsioa egin du, eta, horri aurre egiteko, Bizkaiko Aldundiko laguntza baliatu du (54.800 euro). "Eskolan berriztu genuen lehenengo konpost gunea, eta, ondo zebilela ikusita, besteak aldatu ditugu", esan du Mikel Abasolo zinegotziak. Gaiari buruzko sentsibilizazio eta ingurumen hezkuntza kanpaina ere egingo dute, otxandiar guztientzat.

## Azoka solidarioa egingo dute Iurretan, abenduaren 9tik 12ra

**A.B**. IURRETA

Abenduaren 9an, martitzena, Iurretako 11. Azoka Solidarioa zabalduko dute Ibarretxe kultur etxean. Herritarrek emandako jostailuak, bitxiak, arropa, dekorazio elementuak eta sukalderako objektuak ipiniko dituzte salgai. Elkartasun ekimenean baturiko dirua Durangoko JAED gizarte laguntza elkarteari emango diote. Anderebide elkarteak antolatzen du azoka, udalaren laguntzagaz.

Azoka solidarioa abenduaren 12ra arte egongo da zabalik, goizean 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 15:30etik 20:00etara, antolatzaileek azaldu dutenez. Bertan, bost euroko erosketa bakoitzaren truke otzara baten zozketan parte hartzeko txartelak emango dituzte. Abenduaren 12an zozkatuko dute otzara, Anderebidek jakinarazi duenez.

# ANBOTO Landue euskararen aldeko egitasmora batu da

Euskararen aldeko konpromisoa berretsi dute urte amaierako ekitaldian. Dagoeneko 50 Landuekide dira

**E.H.** DURANGALDEA
Urte amaierako Landue 2025 ekitaldiak eskualdeko enpresetako ordezkariak, erakundeetako arduradun politikoak eta hizkuntza-normalizazioko eragileak batu zituen. Hauek dira hitzarmenkide berri batzuk: ANBOTO, Garaia Osasunerako Sustapena, Taula, Biolur, Erlia, Evec, We Are Clickers, Cumenorte, Solatsu Telleria Espazioa, Smurfit Westrock Nervion, Latxaberri eta Furesa.



Landueko ekitaldiko argazki bat.

## DURANGALDEA ASTEON



### 2026an ez dute Koba Live jaialdia antolatuko

ABADIÑO Koba Liveko antolatzaileek asteon iragarri dutenez, 2026an ez dute jaialdia antolatuko. Sugaar Musika Elkarteak iragarri duenez, izan dituzten murrizketa ekonomikoengaitik erabaki dute jaialdia ez antolatzea. "Asko sentitzen dugun arren, jaialdia ez antolatzeko erabakia hartu dugu. Laguntzak murriztu dizkigute, bai Bizkaiko Foru Aldundian bai Abadiñoko Udalean, eta, beraz, jaialdia ez antolatzea erabaki dugu", azaldu dute komunikatu baten bitartez.



Jone Guenetxea Zelaieta Herri Eskolako ikasleekin.

### Zelaieta herri eskolako aldizkariaren 500. alea

ABADIÑO Zelaieta herri eskolan ilusioz bizi dute astekariaren 500. alea. Ikastetxean egindako lanketa etorkizuneko kazetariengan interesa pizteko ekarpena izan daiteke. Oraingoz, bide bat da LH5eko eta LH6ko gazteak hedabideen mundura gerturatzeko eta ikastetxean egindako lana zabaltzeko. Jone Guenetxea ANBOTOko zuzendaria ikastetxe honetako proiektua ezagutzera joan zen.

### Jostailu bilketa Durangon, abenduaren 15era arte

DURANGO El Árbol Gobernuz Kanpoko Erakundeak jostailu bilketa hasi du, "Gabonetako magia etxe guztietara heltzea ziurtatzeko". Durangoko Juan Olazaran kalean ipini dute bilketa puntua, Ibaizabal errekaren inguruan, Iurretako mugan. Bertan jostailuren bat utzi gura dutenek horretarako aukera izango dute abenduaren 15era bitartean. Egun eta ordu hauetan egongo dira: abenduaren 5ean, 9an, 10ean, 11n, 12an eta 15ean, 17:00etatik 19:00etara.

## GUTUNAK

**Idatzi zure gutuna eta bidali!**

**Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## POLITIKAN



**PAULE SANCHEZ**
EAJ

### Egun sinbolikoez haratago eta

Aste honetan Euskararen Nazioarteko eguna ospatu dugu, egunotan ere Durangoko azokan murgilduta gaude eta "Zer kolore du euskarak?" galderarekin hausnarketa partekatua egin dugu.

Udalak proposatutako lanketan, pertsona desberdinek egindako ekarpenekin, sentimendu, bizipen eta begirada asko jaso dira eta sentsazioak nahiko partekatuak diruditen arren, euskararen etorkizuna datuetan oinarrituta eraiki behar dela bat gatoz. Horregatik, gure herrian euskararen benetako egoera zein den ezagutu eta politika berritzaile eragin-korrak planteatzeko, 2026an kale-neurketa bat egingo dugu. Behin irtenbide efektiboenak izan daitezkeenak proposatuta, ezinbestekoa izango da denok batera jardutea. Hau da, erakundeok, euskalgintza eta herritarrak, elkarlanean, guztiok norabide berean arraun egitea berebizikoa da. Egunotan Durango arnasgune da eta Euskararen Egunak gure hizkuntzari sostengua emateko gogoa berpiztu diezagukeen arren, ez da nahikoa. Azoka eta egun sinbolikoez harago, urte osoan euskararentzat esparru seguru eta erosoak sendotu behar ditugu. Esan bezala, euskararekin dugun harremana ezin da egun bateko kontua izan eta gure egunerokoan txertatu behar dugu, eta erakunde publikook horren eredu izan. Gure helburua argia da: Durango eta Durangoko Udala euskararentzat arnasgune izatea, gaur, bihar eta etorkizunean.

anboto

**Gertuko Koop S., Gizarte Ekimenekoa**

**Bixente Kapanaga, 9**
**48215 Iurreta - Bizkaia**
**Tel.: 946 816 558**
**Erredakzioa:** 946 232 523
**Publizitatea:** 946 217 902

**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
**Marketina:** Deñe Izaga Yeregui.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

**DA!** KULTURAREN JAIALDIA

# DURANGOKO AZOKA

## SAGUGANBARA – ELKARTEGIA

### ABENDUAK 5

10:00 - 11:30 **Komiki tailerra. Eñaut Aiartzaguena** *Tailerra*

12:00 - 13:30 **Komiki tailerra. Eñaut Aiartzaguena** *Tailerra*

16:45 - 17:15 **Eraman nazazu zurekin. Junkal Lertxundi eta Xabi Salaberria.** 1545 argitaletxea *Ipuin kontaketa*

17:30 - 18:00 **Dortokaren ametsa. Amaia Egidazu eta Xabi Salaberria.** 1545 argitaletxea *Ipuin kontaketa*

18:15 - 18:45 **Su txikian. Olatz Mitxelena, Yolanda Arrieta eta Irati Eguren.** 1545 argitaletxea *Ipuin kontaketa*

### ABENDUAK 6

10:30 - 11:30 **Abentura erraldoia: bildumaren azken ipuina eta karta-jokoa. Ipuin kontaketa marraztua. Gorka Bereziartua eta Adur.** Argia *Ipuin kontaketa*

12:00 - 12:35 **Orkestra zoragarria. Gotzone Butron eta Aitziber Raya.** Pamiela *Liburu aurkezpena*

13:45 - 14:30 **Xirribit ipuin musikatua. Irene Irureta eta Juan Kruz Igerabide.** Euskal Barrok Ensemble *Aurkezpena*

15:30 - 16:00 **Kaixo, xomorro. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena.** Amesgile *Liburu aurkezpena*

16:15 - 16:45 **Lanbideletrak. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena.** Denonartean *Liburu aurkezpena*

17:00 - 17:30 **Tapakia. Maite Gurrutxaga.** Erein *Tailerra*

18:00 - 18:30 **Mati eta Zugarramurdiko misterioa: saria ala ziria? Itxaso Martin eta Eider Eibar.** Alai *Liburu aurkezpena*

### ABENDUAK 7

10:30 - 11:00 **Arrakastaren bila. Lur Gallastegi.** Alai *Liburu aurkezpena*

11:15 - 11:45 **Txirriki-txarraka. Amaia Egidazu.** Pamiela *Liburu aurkezpena*

12:00 - 12:45 **Lagunekin Topa! Disko aurkezpena. Potx, Lotx, Izaskun eta Xabi Sound** *Ikuskizuna*

16:00 - 16:45 **Goazen oihanera. Maialen Alfaro.** Elkar *Ipuin kontaketa*

17:00 - 17:30 **Mendia eta ni. Edurne Urrestarazu eta Irati Peluaga.** Ikas *Liburu aurkezpena*

17:45 - 18:15 **Mater-altxorrak. Pello Añorga, Jokin Mitxelena eta Izaskun Suberbiola** *Liburu aurkezpena*

18:30 - 19:00 **Kapa-ipi-xopo, Igeltxo. Pello Añorga.** Txalaparta *Liburu aurkezpena*

### ABENDUAK 8

10:30 - 11:00 **Malen jentila eta basoko melodia. Aingeru Gorrotxategi eta Amaia Ballesteros.** Bizkaiko Foru Aldundia *Liburu aurkezpena*

11:15 - 11:45 **Gaxuxa eta karramarro magikoa. Alvaro Beñaran eta Mari Seara.** Hik Hasi *Ipuin kontaketa*

12:00 - 12:30 **Gora Musika eta Korrontzi. Oiane Yarza eta Urko Oskoz. Gora Musika** *Disko aurkezpena*

13:30 - 14:30 **Txiki festa. Mikel Leibar, Iñigo Agirrezabala eta Argiñe Belakortu.** Txulalai *Ikuskizuna*

16:30 - 17:00 **Kanutoren anaia. Josan Aramayo** *Ipuin kontaketa*

# TALAIA – LANDAKOGUNEA

## ABENDUAK 5

**11:00 - 12:00 DOITU: digitalizazio osasuntsu eta libre baten aldeko gida.** Izarkom *Aurkezpena*

**12:15 - 13:00 AIZU! Aldizkaria.** AEK *Tailerra*

**13:00 - 14:00 Zer egingo dugu idazketarekin? Yolanda Arrieta, Nerea Loiola eta Amaia Egidazu.** 1545 argitaletxea *Mahai-ingurua*

**16:00 - 16:30 Foru jauregian: Bizkaiko historian barrena 1900/2025. Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga.** Bizkaikoa *Aurkezpena*

**16:30 - 17:00 Mendizaletasun osasuntsu eta segururako eskuliburua. Kepa Lizarraga.** Bizkaiko Foru Aldundia *Aurkezpena*

**17:00 - 18:00 Garen piztiaz beste: hitz egin liteke euskal transfeminismoaz? Iñi Etxezarreta eta Elene Lopetegi.** Txalaparta *Mahai-ingurua*

**18:00 - 19:00 Sortzaileek herria: Geuretik Sortuak kultur egitasmoa.** Udalbiltza partzuergoa *Aurkezpena*

**19:00 - 19:30 Manuel de Ynchausti eta Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonia (Jatsu 1937-1939): euskal gerrako haurren babes-etxea. Jon Urutxurtu.** Bizkaiko Foru Aldundia *Aurkezpena*

**19:30 - 20:00 Ahotsak gorpuztuz: euskal emakumezkoen literatura (1970-1985). Jon Kortazar eta Elisabete Alberdi.** EHU *Aurkezpena*

## ABENDUAK 6

**11:00 - 12:00 Euskara Euskal Herriko gazteen bizitzetan. Leire Casamajou, Pello Enbeita, Iraia de la Torre eta Irati Alvarez.** EHE eta Gazte Euskaltzaleen Sarea *Mahai-ingurua*

**12:00 - 13:00 Jon Mirande: XX. mendeko euskal literaturaren ardi beltza. Katixa Dolhare, Gorka Bereziartua, Santi Leone eta Mikel Soto.** Alberdania eta Elkar *Mahai-ingurua*

**13:00 - 13:30 Martxelo Otamendi: handira jotzeko kazetaritza. Martxelo Otamendi eta Garbiñe Ubeda.** Berria, Elkar eta Jakin *Aurkezpena*

**13:30 - 14:00 Bizi baratzea: lurrari begiratzen diogunon orria. Jakoba Errekondo.** Argia *Aurkezpena*

**14:00 - 14:30 Euskararen mende magikoak. Juan Martin Elexpuru.** Elkar *Aurkezpena*

**15:30 - 16:00 Ezinezkoaren alde. Iñigo Martinez Peña.** Elkar *Aurkezpena*

**16:00 - 16:30 Emakumeen boterea eta komunitatearen iraultza. Aiora Enparantza.** Katakrak *Aurkezpena*

**16:30 - 17:00 Etxearen korapiloa nola askatu. Unai Fernandez de Betoño eta Iratxe Delgado.** UEU *Aurkezpena*

**17:00 - 17:30 Lehen astinduak, lurraren altxamenduak. Eider Beobide.** Katakrak *Solasaldia*

**17:30 - 18:00 Bizitza baten txatalak: andre bat lurrari emana. Onintza Enbeita.** Argia *Aurkezpena*

**18:00 - 19:00 Gazako istorioak: bizitza gerren artean. Mikel Ayestaran, Ibon Plazaola eta Mikel Reparaz.** Alberdania *Mahai-ingurua*

**19:00 - 19:30 Dolu-egunerokoa. Roland Barthes, Danele Sarriugarte (itzul.).** Katakrak *Solasaldia*

**19:30 - 20:00 Heziketa librea. Ane Ablanedo eta Olatz Lasagabaster.** Hik Hasi *Aurkezpena*

## ABENDUAK 7

**11:00 - 12:00 Durangoko Azokaren ikerketa soziologikoaren emaitzak.** Gerediaga elkartea eta Siadeco *Aurkezpena*

**12:00 - 13:00 Euskal PEN berrasmatuz. Batzar irekia. Laura Mintegi, Urtzi Urrutikoetxea, Paul Bilbao eta Xabi Paya.** PEN kluba *Solasaldia*

**13:00 - 13:30 Esnatu ala hil. Iñaki Iurrebaso eta Garikoitz Goikoetxea.** Elkar *Aurkezpena*

**13:30 - 14:00 Joseba Sarrionandiaren literatura: bitakora kaiera. Nerea Eizagirre, Mikel Ayerbe eta Amaia Elizalde (Mikel Laboa Katedra).** EHU *Aurkezpena*

**14:30 - 15:00 Mister Eleizegi. Joseba Tapia eta Koldo Izagirre** *Aurkezpena*

**15:30 - 16:00 El pradalismo. Ahoztar Zelaieta.** Txalaparta *Aurkezpena*

**16:00 - 16:30 Pedagogismoaren gezurtapen bat. Tere Maldonado.** Elkar *Aurkezpena*

**16:30 - 17:00 Marx eta Keynes: ekonomia mistoaren krisia. Garazi Goldarazena.** Katakrak *Aurkezpena*

**17:00 - 17:30 Rosa Parks: nire istorioa. Amaia Astobiza.** Katakrak *Aurkezpena*

**17:30 - 18:00 Etxeko leihoak unibertsora. Alba Garmendia.** Txalaparta *Aurkezpena*

**18:00 - 19:00 Euskadi Literatura saridunak. Unai Elorriaga Lopez de Letona, Karmele Mitxelena Etxebeste eta Itxaso Del Castillo Aira. Moderatzailea: Ander Egiluz Beramendi.** Eusko Jaurlaritza *Mahai-ingurua*

**19:00 - 19:30 Ihauterien tradizio bizia: ohitura zaharretatik adierazpen berrietara. Thierry Truffaut eta Peio Heguy.** Elkar *Aurkezpena*

**19:30 - 20:00 Koplarik kopla. Xabier Berasaluze "Leturia".** Elkar *Aurkezpena*

**21:00 - 22:30 Kantu kontari: Bittor Kapanaga, izena eta izana. Gontzal Mendibil, Xabier Amuriza eta Joseba Sarrionandia** *Ikuskizuna*

## ABENDUAK 8

**11:30 - 13:00 Joxe Azurmendiri aitortza ekitaldia.** Jakin Fundazioa eta zenbait sortzaile *Ikuskizuna*

**13:00 - 14:00 Euskadi Literatura saridunak. Garazi Albizua Castelao, Markos Zapiain Agirre, Maite Rosende Gutierrez eta Koldo Biguri Otxoa de Eribe. Moderatzailea: Ander Egiluz Beramendi** *Mahai-ingurua*

**14:00 - 14:30 Herri Urrats: III. maketa lehiaketaren aurkezpena eta binilo bikoitzaren aurkezpena. Koldo Rodriguez.** Herri Urrats *Aurkezpena*

**15:30 - 16:00 Sorginak, putak, terroristak. Indarkeria matxistaren ertzak: tortura politikoa. Olatz Dañobeitia.** Txalaparta *Aurkezpena*

**16:00 - 16:30 Gabriel Arestiren mandatua.** Gabriel Aresti kultur elkartea eta Euskaltzaindia *Aurkezpena*

**16:30 - 18:00 Denbora bizigarri baterako, ilustrazio erradikal berria eta promesaren denbora. Marina Garcés, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel eta Olatz Mitxelena.** Jakin, Kontseilua, TEKS eta Badalab *Aurkezpena*

# BERBAGAILUA – MADALENAKO ERMITA

## ABENDUAK 5

**11:00 - 12:00 Ez DA! normala.** Durangoko Azoka *Bideopodkasta*

**12:10 - 13:00 Ez DA! normala.** Durangoko Azoka *Bideopodkasta*

**16:00 - 17:00 Irakurrieran.** Bizkaia Irratia *Bideopodkasta*

**18:00 - 18:00 Liburuen Errepublika Txikia.** Bilbo Hiria irratia *Bideopodkasta*

## ABENDUAK 6

**11:00 - 12:00 Berriketan.** Berria *Bideopodkasta*

**13:00 - 14:00 BaDA!bil.** Durangoko Azoka, EITB *Bideopodkasta*

**17:00 - 18:00 Benetan zabiz.** EITB *Bideopodkasta*

## ABENDUAK 7

**11:00 - 12:00 Kontatzera noazu.** Naiz irratia *Bideopodkasta*

**13:00 - 14:00 Musikazuzenean.** Hamaika telebista *Bideopodkasta*

**17:00 - 18:00 Belarrijana.** Gedar telebista *Bideopodkasta*

## ABENDUAK 8

**11:00 - 12:00 Sona.** Goiena telebista *Bideopodkasta*

**13:00 - 14:00 Flop kultura.** Euskalerria irratia *Bideopodkasta*

# KABI@ - LANDAKOGUNEA

## ABENDUAK 5

10:30 - 11:30 **Bideo-mapeaketa lantegia.** Martin Etxauri Sainz de Murieta, Txo!?. *Tailerra*

11:45 - 12:45 **Bideo-mapeaketa lantegia.** Martin Etxauri Sainz de Murieta, Txo!? *Tailerra*

17:00 - 18:00 **Hirukokoroa.** Eider Eibar eta Iskander Sagarminaga *Aurkezpena*

18:30 - 20:00 **Egin Ttap!.** Kukulaisi *Topaketa*

## ABENDUAK 6

10:30 - 11:00 **DBHn digitalizazio librea lantzeko Wikikasi ikas-egoera.** Mattin Solis (Talaios) eta Leire Lison (Badalab) *Aurkezpena*

11:15 - 11:45 **EIMA katalogoa.** Roberto Kerexeta Zulaika eta Ainara Buenetxea Iturrioz *Aurkezpena*

12:00 - 12:30 **Ikusgela - Zientzia bideoak egiteko bi eredu.** Aiora Mujika. Euskal Wikilarien Elkartea *Aurkezpena*

12:45 - 13:15 **Hamarratz.** Iurdana Acasuso. Azkue Fundazioa *Aurkezpena*

13:30 - 14:00 **Kutxaz kanpo: esperientzien kutxa.** Xabier Landabidea Urresti *Aurkezpena*

17:00 - 17:25 **Eli-k-on.** Aitor López Olivares *Aurkezpena*

17:30 - 17:55 **Bazterka: urik gabeko herria.** BUG Aizokora *Aurkezpena*

18:00 - 18:25 **Nire argigunea.** Eneko Amezaga *Aurkezpena*

18:30 - 18:55 **Tagzania: berpizkundea eta gehiago.** Luistxo Fernandez. CodeSyntax *Aurkezpena*

19:00 - 19:25 **Don t anger the boss.** Curly Studios *Aurkezpena*

19:30 - 20:00 **The last cage.** Walrush Studios *Aurkezpena*

## ABENDUAK 7

11:00 - 11:30 **Adimen artifiziala Babelgo dorrean.** Ander Barrena. HiTZ zentroa *Solasaldia*

11:45 - 12:15 **Palestina eta Ekialde Hurbila sutan (2023-2024).** Iñaki Lopez de Luzuriaga eta Iñaki Alegria *Aurkezpena*

12:30 - 13:00 **Ni.eus. Zure pribatutasuna, gure hizkuntzan: euskarazko posta eta hodei segurua.** Lorea Arakistain, Puntu.eus *Aurkezpena*

13:15 - 13:45 **Euskal Herriko historia 100 objektutan: podcast eta komiki bidez kontatua.** Euskal Wikilarien Kultur Elkartea *Aurkezpena*

17:00 - 17:30 **Hitzaurrea. Piszifaktoria Ideien Laborategia eta Fikzioa Fabrika** *Aurkezpena*

17:45 - 18:15 **Hizki-abi. Alejandra Bueno** *Aurkezpena*

18:30 - 19:00 **Sugarklaang.** Vanessa Lorenzo Toquero *Aurkezpena*

19:15 - 19:45 **Trikitixaren hurrengo kapitulua: hauspodun triklatua.** Xabier Malbadi *Aurkezpena*

## ABENDUAK 8

10:30 - 14:00 **Gamer gela.** Game Erauntsia eta Rolariak *Topaketa*

16:30 - 19:30 **Gamer gela.** Game Erauntsia eta Rolariak *Topaketa*

# SZENATOKIA – SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA

## ABENDUAK 5

10:30 - 11:30 **Antzerki sorkuntza partekatzen. Inprobisazioaz!.** Karrika antzerki taldea *Tailerra*

12:00 - 13:00 **Antzerki sorkuntza partekatzen. Inprobisazioaz!.** Karrika antzerki taldea *Tailerra*

19:00 - 20:00 **60. Durangoko Azokaren inaugurazio ekitaldia.** Gerediaga elkartea *Inaugurazioa*

## ABENDUAK 6

11:00 - 11:30 **Destiny driver.** Lamapatxa antzerki tadea *Antzerkia*

12:00 - 12:15 **Nondik abiatu inora.** Nabiga kolektiboa *Dantza*

16:00 - 16:30 **Destiny driver.** Lamapatxa antzerki tadea *Antzerkia*

16:30 - 16:45 **Nondik abiatu inora.** Nabiga kolektiboa *Dantza*

17:30 - 18:00 **bostOK!.** bostOK! antzerkia *Antzerkia*

20:00 - 20:30 **bostOK!.** bostOK! antzerkia *Antzerkia*

## ABENDUAK 7

11:30 - 11:45 **Buruzagien batzarra.** Karrika antzerki taldea *Antzerkia*

12:30 - 13:00 **Karin karan.** 7 katu maskaratu *Antzerkia*

13:00 - 13:15 **Buruzagien batzarra.** Karrika antzerki taldea *Antzerkia*

16:00 - 16:35 **Alperrak, tunanteak eta maleanteak.** Gilkitxaro *Antzerkia*

17:00 - 17:30 **Karin karan.** 7 katu maskaratu *Antzerkia*

18:00 - 18:35 **Alperrak, tunanteak eta maleanteak.** Gilkitxaro *Antzerkia*

## ABENDUAK 8

11:30 - 11:45 **Gaua.** Ibawa kolektiboa *Dantza*

12:00 - 12:30 **Furgonologoa.** Julen Axpe *Bakarrizketa*

12:30 - 13:00 **Hil da jainkosa.** Bibitxa kolektiboa *Antzerkia*

16:00 - 16:15 **Gaua.** Ibawa kolektiboa *Dantza*

16:30 - 17:00 **Furgonologoa.** Julen Axpe *Bakarrizketa*

17:00 - 17:30 **Hil da jainkosa.** Bibitxa kolektiboa *Antzerkia*

# DURANGO +

## ABENDUAK 5

10:30 - 20:00 **Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean.** Eskuahaldunak eskultoreen elkartea *Erakusketa*

11:00 - 20:30 **Arbaso azoka. Merkatu plazan.** Arbaso artisauen elkartea *Azoka*

11:00 - 21:00 **IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean.** Eixu artisauen elkartea *Azoka*

## ABENDUAK 6

10:30 - 20:00 **Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean.** Eskuahaldunak eskultoreen elkartea *Erakusketa*

11:00 - 20:30 **Arbaso azoka. Merkatu plazan.** Arbaso artisauen elkartea *Azoka*

14:30 - 17:30 **Hikadromoa. Landako eskolan.** Zirhika. *Topaketa*

14:30 - 21:00 **IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean.** Eixu artisauen elkartea *Azoka*

19:30 - 20:30 **Txistua XXI. mendean. Jesuiten Arrupe aretoan.** Silboberri txistu elkartea. *Kontzertua*

## ABENDUAK 7

10:30 - 20:00 **Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean.** Eskuahaldunak eskultoreen elkartea *Erakusketa*

11:00 - 20:30 **Arbaso azoka. Merkatu plazan.** Arbaso artisauen elkartea *Azoka*

11:00 - 21:00 **IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean.** Eixu artisauen elkartea *Azoka*

11:30 - 17:30 **EHko mintzalagunen topaketa. Taupa. Landakon elkargunea.** Taupa *Topaketa*

## ABENDUAK 8

10:30 - 18:00 **Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean.** Eskuahaldunak eskultoreen elkartea *Erakusketa*

11:00 - 19:00 **Arbaso azoka. Merkatu plazan.** Arbaso artisauen elkartea *Azoka*

11:00 - 20:00 **IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean.** Eixu artisauen elkartea *Azoka*

# AHOTSENEA LITERATURA

## ABENDUAK 5

**11:00 - 12:00 Idatzi, kantatu, antzeztu: sormena, gaitasuna eta atxikimendu afektiboa erdiesteko.** Ahotsenea *Tailerra*

**16:00 - 16:30 Mugarik Gabe - Poemak. Joseba Sarrionandia eta Ilham Sami Çomak, Suargi elkartea** *Liburu aurkezpena*

**16:30 - 17:00 Rara, Irati Bediaga.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**17:00 - 17:30 Sua. Gauekoren aroa. Gabriela Rodriguez Brisson (lehenengo irudig.) David Castelo Barrios (idazlea) eta Unai Gonzalez Martinez (bigarren irudig.), Dracco** *Liburu aurkezpena*

**17:30 - 18:00 Utzi kontatzen. Laurie Halse Anderson (Ainhoa Mendiluze, itzultzailea),** Txalaparta *Liburu aurkezpena*

**18:00 - 18:30 Etengabeko (ber)eraikuntzan. Julene Gatzagaetxebarria Ameyugo, Egilea editore** *Liburu aurkezpena*

**18:30 - 19:00 Lisipe bilduma.** Susa *Liburu aurkezpena*

**19:00 - 19:30 Erleen azken ziztada. Kepa Iribar.** Erein *Liburu aurkezpena*

**19:30 - 20:00 Korrespondentzia. Eric Dicharry.** Maiatz *Liburu aurkezpena*

## ABENDUAK 6

**10:30 - 11:30 Beste zerbait, Danele Sarriugarte/ Katona, Antxiñe Mendizabal / Narrugorrik, Ixiar Rozas.** Consonni *Liburu aurkezpena*

**11:30 - 12:00 Izen baten promesa. Hedoi Etxarte.** Susa *Liburu aurkezpena*

**12:00 - 12:30 Kuntzak eta kerak. Sara Uribe-Etxeberria Atxurra.** Balea Zuria *Liburu aurkezpena*

**12:30 - 13:00 Esne-berriketan. Uxue Alberdi eta Begoña Durruty.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**13:00 - 13:30 Barne zerbitzuak. Katixa Agirre.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**13:30 - 14:00 Gu da gure guda eta Amiltzearen lorratza.** Balu, Balu *Liburu aurkezpena*

**14:00 - 14:30 Jaiotzetik erreboltari. Matxalen Bezos Arketa, Dakit** *Liburu aurkezpena*

**16:00 - 16:30 Haize begitik. Mikel Ibarguren.** Susa *Liburu aurkezpena*

**16:30 - 17:00 Enarak. Bernardo Atxaga.** Pamiela *Liburu aurkezpena*

**17:00 - 17:30 Moebiusen ertzak. Garazi Kamio.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**17:30 - 18:00 Ganbila bilduma. Urteko lau liburuak.** Susa *Liburu aurkezpena*

**18:00 - 18:30 Erroen izerdia. Jone Bordato.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**18:30 - 19:00 Espekulazioak. Arrate Egaña.** Erein *Liburu aurkezpena*

**19:00 - 19:30 Azpijokoa Azpiazun. Iñaki Dorronsoro Maioz.** Erein *Liburu aurkezpena*

**19:30 - 20:00 Luma kantaria, Idoia Beratarbide, / Bilduma ikusezina, Stefan Zweig (Itzultzailea: Naroa Zubillaga). 1545** *Liburu aurkezpena*

**21:30 - 22:30 Zeri idatziko diogu orduan?** Behe Banda *Errezitala*

## ABENDUAK 7

**11:00 - 11:30 Zahartzaroaren maparen bila. Arantxa Urretabizkaia.** Pamiela *Liburu aurkezpena*

**11:30 - 12:00 Silueta. Harkaitz Cano.** Sus *Liburu aurkezpena*

**12:00 - 12:30 Dena zulo bera zen. Eider Rodriguez.** Susa *Liburu aurkezpena*

**12:30 - 13:00 Euri eta ateri. Alaine Agirre.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**13:00 - 13:30 Lakioa. Josu Goikoetxea.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**13:30 - 14:00 Palinpsestoa. Joxe Austin Arrieta.** Maiatz *Liburu aurkezpena*

**16:00 - 16:30 Diesel. Bertol Arrieta.** Alberdania *Liburu aurkezpena*

**16:30 - 17:00 Errusiako gutunak. Vera Zasulitx.** Katakrak *Liburu aurkezpena*

**17:00 - 17:30 Aizkorak eta gutunak. Edorta Jimenez.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**17:30 - 18:00 Akabo. Laura Mintegi.** Txalaparta *Liburu aurkezpena*

**18:00 - 18:30 Auzokinak. Gorka Erostarbe.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**18:30 - 19:00 Harrizko bihotza. Karmele Jaio.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**19:00 - 19:30 Biba gorriac. Imanol Murua.** Pamiela *Liburu aurkezpena*

**19:30 - 20:00 Txerriak eta loreak. Jon Arretxe.** Erein *Liburu aurkezpena*

**22:00 - 23:00 Heriotzak Eduardo du izena.** Formol Laborategia *Ikuskizuna*

## ABENDUAK 8

**10:00 - 11:00 Sormen Beka DA. Sari ematea.** Gerediaga Elkartea. Durangoko Udala. *Aurkezpena*

**11:00 - 11:30 Aurpegiak. Amaia Telleria.** Alberdania *Liburu aurkezpena*

**11:30 - 12:00 Euri Beroak. Iban Garro.** Erein *Liburu aurkezpena*

**12:00 - 12:30 Düsseldorf-eko txibatoa. Karlos Linazasoro.** Erein *Liburu aurkezpena*

**12:30 - 13:00 Odola kantari. Unai Elorriaga.** Pamiela *Liburu aurkezpena*

**13:00 - 13:30 Munduko Poesia Kaierak. N.Hikmet-R.Pozzi.** Susa *Liburu aurkezpena*

**13:30 - 14:00 Guillem. Nuria Cadenes, Amaia Apalauza (itz.).** Txalaparta *Liburu aurkezpena*

**14:00 - 14:30 Sakelako bihotzak. Julen Apella.** Elkar *Solasaldia*

**16:00 - 16:30 Kateriñe. Maitena Illarramendi / Iñigo Sarasola.** Erein *Solasaldia*

**16:30 - 17:00 Urte urdin ihesak. Txiliku.** Elkar *Liburu aurkezpena*

**17:00 - 17:30 Lohizulo. Aitor Oñate.** Elkar *Liburu aurkezpena*

# AHOTSENEA MUSIKA PLATERUENA

## ABENDUAK 5

**11:00 - 12:00 Aztia. Don Inorrez, Oier Guillan** *Tailerra*

**15:40 - 16:10 Gaua. Arima Soul**

**16:50 - 17:20 Bidea badoa. Mugarri**

**18:00 - 18:30 Ahaldatu. Mihise**

**19:10 - 19:40 Kontzertu bat galerari. Mugan**

**20:20 - 20:50 Argitzala. Heitxi**

**21:30 - 22:00 Eskafandra. Eskafandra**

**23:30 Lukiek eta Ezezez** *Kontzertua*

## ABENDUAK 6

**11:00 - 11:30 Kendutako azken kartela. Kak!**

**12:10 - 12:40 Hemen naiz. Bisai**

**13:20 - 13:50 DAM. Jonkass**

**14:30 - 15:00 Etxea. Nhil**

**15:40 - 16:10 Zure estoldetan. Ixabe**

**16:50 - 17:20 Harramazka. Zinez**

**18:00 - 18:30 Aurrera begira. Aria**

**19:10 - 19:40 Goizegi hiltzeko. Ødei**

**20:20 - 20:50 Atzera begira. Herenegun**

**21:30 - 22:00 Ipuinak. Burutik**

**23:30 Mirua eta Naxker** *Kontzertua*

## ABENDUAK 7

**11:00 - 11:30 Alkimia. Harribitxi**

**12:10 - 12:40 Suzko ikurra. Isuo**

**13:20 - 13:50 Dolu(s)min. Ilargi**

**14:30 - 15:00 attä. Sara Zozaya**

**15:40 - 16:10 Oraina eskuetan. Gar**

**16:50 - 17:20 Dirudienez. Karma**

**18:00 - 18:30 Mirari orok tapatzen zauria. Silitia**

**19:10 - 19:40 Hemen. Harria**

**20:20 - 20:50 Ginka Biloba.** Ginka Biloba

**21:30 - 22:00 Bizi eta ixo! Gailu**

## ABENDUAK 8

**11:00 - 11:30 Bidean. Hartzak Zeruan**

**12:10 - 12:40 Magala. Haize-Arrosa**

**13:20 - 13:50 Muturrez zerura. Bele**

**14:30 - 15:00 Berreraikitze aroa. Ekiza**

**15:40 - 16:10 Ezeren alde. Garraio**

**16:50 - 17:20 Hormetan idazten. Esanezin**

**18:00 - 18:30 Denboraren lehia. Kiimak**

**19:10 - 19:40 Itzulera(k). Ane Han**

# ATARTEA – DURANGOKO MUSEOA

## ABENDUAK 5

**10:00 - 11:00 Zianotipia tailerra.** Ikasle goiza *Tailerra*

**10:00 - 20:00 Euskal irudigileen ilustrazioak.** Irudigileen elkartea *Erakusketa*

**11:30 - 12:30 Zianotipia tailerra.** Ikasle goiza ***Tailerra***

**13:00 - 14:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.** Gerediaga Elkartea, Durangoko Udala *Inaugurazioa*

## ABENDUAK 6

**10:00 - 20:00 Euskal irudigileen ilustrazioak.** Irudigileen elkartea *Erakusketa*

**10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.** Gerediaga Elkartea, Durangoko Udala *Erakusketa*

**11:30 - 12:00 Arrate Rodriguez.** Euskal irudigileak *Aurkezpena* –

**12:00 - 12:30 Iban Galan (Desegin).** Euskal irudigileak *Aurkezpena*

**12:30 - 13:30 Iratxe Reparaz, Arrate Rodriguezegaz.** Euskal irudigileak *Solasaldia*

**17:30 - 18:00 Olaia Martinez.** Euskal irudigileak *Aurkezpena*

**18:00 - 18:30 Smoke Signal.** Euskal irudigileak *Aurkezpena*

**18:30 - 19:00 Berexi Art.** Euskal irudigileak *Aurkezpena*

**19:00 - 19:30 Morirse en Bilbao.** Euskal irudigileak *Aurkezpena*

## ABENDUAK 7

**10:00 - 20:00 Euskal irudigileen ilustrazioak.** Irudigileen elkartea *Erakusketa*

**10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.** Gerediaga Elkartea, Durangoko Udala *Erakusketa*

**11:00 - 12:00 Lanartearen liburu aurkezpena.** Lanartea *Mahai-ingurua*

**12:00 - 13:00 Xabiertxoren mendeurrena: atzera begira, aurrera egiteko. Olatz Mitxelena, Haritz Azurmendi, Iratxe Retolaza eta Koldo Ordozgoiti.** 1545 argitaletxea *Mahai-ingurua*

**13:00 - 13:30 Ipuin inklusiboen ataria.** Parean elkartea *Aurkezpena*

**13:30 - 14:00 Musikaren Giltzak: euskarazko musika formakuntzarako metodoa. Marie Hirigoyen Bidart, Itsaso Arrieta Goiri, Pantxix Bidart Pla eta Asisko Urmeneta Otsoa.** GILTzaera elkartea *Aurkezpena*

**16:00 - 16:30 Ama. Urtzi Ugalde.** Iñurri elkartea, Trinchera *Aurkezpena*

**16:30 - 17:30 Talaia Feministaren II. dosierra aletzen. Amaia Perez Orozko, Kizkitza Gil de San Vicente, Amaia Andrieu, Aiora Epelde eta Ane Etxabe** *Mahai-ingurua*

**17:30 - 18:30 Gernika memoriaren lekuko. Sabin Ibazeta, Jon Argintxona, Camino Saiz eta Ibon Menika.** IPES elkartea *Aurkezpena*

**18:30 - 19:00 Urdaibaiko maleta. Txema Garcia, Iñaki Aurrekoetxea eta Oiane Valero.** IPES elkartea *Aurkezpena*

**19:00 - 19:30 Hezkuntza ekosozialeko hiztegia: krisialdi globalerako beste tresna bat. José Manuel Gutiérrez Bastida, Iñaki Bárcena eta José Ignacio de Guzmán.** EHU *Mahaingurua*

## ABENDUAK 8

**10:00 - 20:00 Euskal irudigileen ilustrazioak.** Irudigileen elkartea *Erakusketa*

**10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.** Gerediaga Elkartea, Durangoko Udala *Erakusketa*

**11:00 - 11:30 Biografia: Nortzuk dira Bill Douglass eta Jon Bilbao? William A. Douglass, Jon Bilbao Saralegui** *Solasaldia*

**11:30 - 12:00 Amerikanuak euskaraz: Euskarazko edizioa. Asun Garikano** *Aurkezpena*

**12:00 - 12:45 Ameriketan euskaldun izatea gaur. Joseba Zulaika, Larraitz Ariznabarreta** *Solasaldia*

**12:45 - 13:15 Diaspora ikasketak. Iker Saitua, Maialen Gorizelaia** *Aurkezpena*

**13:15 - 13:45 Euskal ikasketak. Irene Larraza** *Aurkezpena*

**16:00 - 16:45 Diasporako literatura. Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia** *Solasaldia*

**16:45 - 17:30 Euskaldunak Hollywooden zineman. Oscar Alvarez** *Aurkezpena*

# IRUDIENEA – ZUGAZA

## ABENDUAK 5

**10:30 - 12:45 Nola sortu dokumental bat.** Traola produkzioak *Tailerra*

**10:30 - 12:50 Eduki digitala euskaraz DA!.** Pantailak Euskaraz dinamika *Solasaldia*

**13:00 - 13:30 'Eden' soinu-fikzioaren 3. denboraldia.** EITB *Aurkezpena*

**13:30 - 14:30 Ikusgela: historia ulertzeko bideoak.** Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen proiektua eta Bira produkzioak *Aurkezpena*

**14:30 - 15:00 Amets hegalariak. Arrate Fernandez Itxaso** *Film emanaldia*

**15:00 - 16:30 Enarak. Beñat Iturrioz Perez** *Dokumentala*

**16:30 - 17:30 Andereño Monika gogoratzen: 1934ko ikastolaren historia. Sonia Francisco, Itziar Barrenetxea eta Josi Sierra** *Dokumentala*

**17:30 - 18:00 Gure oilarra kanpoan da. Carlota Galilea** *Film emanaldia*

**18:00 - 19:30 Kantauri. Xabi Mina, Isaias Cruz eta Patxi Zubizarreta** *Dokumentala*

**19:30 - 20:50 Mugarik gabe: musika, erresistentzia eta elkartasun bidaia bat. Boris Guevara eta Mugarik Gabe Collective.** Suargi Elkartea eta Zutarri Kultura Elkartea *Dokumentala*

## ABENDUAK 6

**11:00 - 13:00 Jone, batzuetan. Sara Fantova** *Film emanaldia*

**12:00 - 14:00 Piztiak. Amancay Gaztañaga.** EITB *Aurkezpena*

**13:00 - 14:30 Sorgina banaiz. Asisko Urmeneta** *Dokumentala*

**14:30 - 15:30 'Ezki kontu-kontari' bigarren denboraldia. Leire Bereikua Barinagarrementeria eta Iban Gonzalez Pagaldai.** Gookapi *Aurkezpena*

**16:00 - 17:00 Gazte laburmetraDA!. Bariazioak (Lur Olaizola Lizarralde), Barruko dardara (Maider Arruti), Egon ez zaren lekuetara itzultzeko (Hatortxu Rock, auzolanean)** *Aurkezpena*

**18:00 - 21:00 DemaS.A.: sortzaile amateurren arteko dema. Euskarazko film laburren finala.** Taupa Euskaltzaleen Mugimendua *Lehiaketa*

## ABENDUAK 7

**10:30 - 11:00 Joseba Sarrionandiaren zinema paperak. Josu Martinez eta Joseba Sarrionandia.** Pamiela *Liburu aurkezpena*

**11:00 - 12:20 Erreplika. Pello Gutierrez Peñalba** *Dokumentala*

**12:30 - 13:30 Araba lehen alaba. Mikel Sanchez Duran eta Ariana RAC** *Dokumentala*

**13:30 - 14:00 Urdaibaiko sakrifizioa. Galder Irusta** *Film emanaldia*

**14:30 - 15:00 Olatu baten istorioa. Nagore Eceiza** *Film emanaldia*

**15:30 - 16:30 Mithy esploratzailea: Guatemala. Leire Bereikua Barinagarrementeria eta Iban Gonzalez Pagaldai.** Gookapi *Aurkezpena*

**16:30 - 17:50 Txillarreko sukaldaria. Asier Ibaibarriaga Apoita eta Edurne San Martin Larrañaga** *Dokumentala*

**18:00 - 19:50 Animo. Alex Tello Arostegi** *Film emanaldia*

**20:00 - 21:00 LaburmetraDA!** *Film emanaldia*

**20:30 - 22:00 Gaua. Paul Urkijo Alijo** *Film emanaldia*

## ABENDUAK 8

**11:00 - 12:50 Akelarre: marearen kontra. Xabier Zabala eta Carlos Iglesias** *Dokumentala*

**12:00 - 13:50 'Irabazi arte' 5. denboraldia.** EITB *Film emanaldia*

**13:00 - 14:30 Lurdes Iriondo, ez gera alferrik pasako. Inge Mendioroz Ibañez** *Dokumentala*

**14:00 - 15:00 Loa eta Laia: bat, bi hiru, lau! Doinuak hamalau! Josu Bergara, Paul Caballero, Ane Martinez, Leire Aparicio, David Sanchez.** Paraxut *Aurkezpena*

**14:45 - 16:00 Sablehortz kapitaina eta Greleko kondesa. Familia zinema euskaraz.** Zineuskadigaz elkarlanean *Film emanaldia*

**16:00 - 18:00 Emakumeak herri kiroletan: geu ere bagara nor! Akaitze Kamiruaga.** Labayru Fundazioa *Dokumentala*

**18:00 - 19:30 Aldarriak. Cecilia Muñoz eta Juan Esteban Montoya** *Dokumentala*

# Arantza Plazak jantziko dio txapela irabazleari

**BERTSOLARITZA** Arantza Plazak jantziko dio txapela 2025eko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazleari; urte luzez bertsolaritzaren transmisioan egindako lana sarituko diote Berrizen bizi den Plazari; abenduaren 20an izango da finala, Bilbon

**A. M.** BERRIZ

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazleak Arantza Plazaren eskutik jasoko du txapela abenduaren 20ko finalean. Urteetan bertsolaritzaren transmisioan egindako lana saritu gura dio Bizkaiko Bertsozale Elkarteak Berrizen bizi den Plazari. Hain zuzen ere, Arantza Plaza Zamora (Gizaburuaga, Bizkaia, 1958) 2004an hasi zen eskoletan bertsolaritza irakasten, eta behar horretan aritu da 2022ra arte. Bizkaiko elkartean laneko erretiroa hartu duen lehenengo langilea izan da Plaza. Hamarkada bitan Plazak hainbat errealitate ezagutu duela nabarmendu dute Bertsozale elkartekoek: "Egoera soziolinguistiko desberdinak, eskola handi zein txikiak, hiriburua eta herriak... eta kasu guztietan ederto moldatu da". Hezkuntza arautuan ez ezik, elkarteko beste hainbat proiektutan ere parte hartu duela azpimarratu dute: "Dokumentazio beharretan lan mardula egin du Bizkaiko bertsolaritza lantzeko eta elikatzeko. Hamaika elkarrizketa egin du horretarako; tartean, Bizkaiko Bertsogintza IV liburuko dokumentazio lana". Bizkaiko Bertsolari Txapelketa ere gertutik bizi izan du Plazak; boluntario beharrak egin ditu, eta etxekoak eta lankideak ere izan ditu oholtza gainean.



**Arantza Plaza.** BERTSOZALE ELKARTEA

Finala abenduaren 20an izango da, Bilboko Casillan. Zortzi finalisten artean, Durangaldeko hiru lagun egongo dira: Aitor Bizkarra eta Txaber Altube abadiñarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarra.



**'Astola' aldizkarian parte hartu duten kideak.** GEREDIAGA ELKARTEA

## Gerediaga elkartearen Astola aldizkariaren 19. alea kalean da

**ASTOLA** Astola urtekariaren ale berriak dozena bat gai jaso ditu; zazpi eurotan dago salgai, hainbat saltokitan

**A. M.** DURANGALDEA

Dagoeneko kalean da Astola urtekariaren 19. alea. Urtekaria Durangaldeko ondarearen eta historiaren zabalkunderako jaio zen. Dozena bat erreportajek osatzen dute azken ale hau; horien artean, Izaskun Ellakuriagak kazetaritzan egindako azken lanetariko bat irakurri daiteke. Ellakuriaga uztailean zendu zen. Hain zuzen ere, Marisa Barrena ekintzaile feministari egin zion elkarrizketa, Durangoko Aramotz auzunean, eta haren militantzia sozial eta politikoa ardatz hartuta, haren bizitzari errepasoa egin zioten. Urtekariko 19. ale honetan, beste gai hauek ere jorratu dituzte: Durangaldeko zinemen historia, Doliwaren itsasontziaren misterioa, Bittor Kapanagaren bizitza, Ezkurdi plazaren arkitektura, eta Elorrioko San Bartolome ermitaren balioa.

Astola urtekaria 7 euroan dago salgai, Durangaldeko hainbat saltokitan. Durangoko Azokan ere egongo da eskuragarri, Gerediaga elkartearen erakusmahaian. Elkarteko bazkideek ale bana jasoko dute, doan.



GAI LIBREAN

**LIBE MIMENZA CASTILLO** EHUKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEA

## Txati

Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, 100 ikasletik gora daude aurten komunikazio ikasketak egiten hasi den euskarazko bi taldeetako baten. Kazetaritza hautatu dute batzuek, Ikus-entzunezko Komunikazioa ala Publizitate eta Harreman Publikoetako gradua beste batzuek. Haiekin dut hitzordua astelehenero, eta maite dut gazte begirada bizi horien distira.

Lehen mailako oinarrizko ikasgaian, astero zabaldu dugu ezagutza pilula berri bat: komunikazioaren oinarrizko baldintza zein lehengai den hizkuntza, etimologia eta definizioak, teoria nagusi batzuk, marketina, publizitatea, erakunde komunikazioaren trikimailuak... eta, *bonus track*, adimen artifiziala.

Zuk zein erabiltzen duzu? Haiek Txati.

Nola da posible orain arte inoiz ez dituztela landu pentsamendu konputazionalaren oinarriak, loro estokastikoak, ezagutza sakona eta hizkuntza-eredu handiak, alborapenak, edo AA sortzailearen zein orokorraren bilaketak dakarren histeria eragiten ari den estraktibismoa? Eta hori baino sinpleagoak ere: nork eta noiz azalduko die denek darabilten ChatGPT kontuaren erabiltzaile aukeretan sartu eta haien datuekin makina ez entrenatzeko aukera klikatzeko botoia eskura dutela? Edo euskaraz ere haietako asko bezain ondo, apika hobeto, mintzo dela?

**"HAIEKIN DUT HITZORDUA ASTELEHENERO, ETA MAITE DUT GAZTE BEGIRADA BIZI HORIEN DISTIRA"**

Ikasle eta herritar kritikoak nahi dituen herriak behar ditu baita halako irakasleak, baina ezin da ardura hau norbere aukeraren mende geratu.

Sortu ditzakegu nahi beste dokumentu adimen artifiziala noiz eta nola erabili behar den adierazteko, edo amaituko dugu ebaluazio tresna analogikoetara bueltatzen, baina, bidean, armatuko al dugu belaunaldi hau tresnak erabiltzeko behar duten alfabetatze digitalaz? Bestela Txatik egingo du eta, gero, emaitza ez zaigu gustatuko.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.** Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 5

**ABADIÑO Erakusketa**
'Naturari so' (Durangaldeko Artisten Elkarteko erakusketa kolektiboa).
*Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra bitartean.*

**DURANGO Erakusketa**
Artearen ibilbidea.
*Ezkurdin, abenduaren 8ra bitartean.*

**DURANGO Tailerra**
Paperezko elektronika tailerra (Mabel de la Fuenteren eskutik). 5 urtetik gora.
*Otamotzena auzogunean, 17:30ean.*

**DURANGO Kontzertua**
Nokono.
*Kafe Utopia, 19:30ean.*

**IURRETA Kontzertua**
Swamp taldea.
*Korta tabernan, 20:00etan.*

**MALLABIA Erakusketa**
'Bakardade ikusiezina'.
*Liburutegian, abenduaren 19ra bitartean.*

**MAÑARIA Erakusketa**
'Tresnak eta natura' erakusketa finkoa.
*Hontza Museoan.*

**ZALDIBAR Lehiaketa**
Bittor Garitaonaindiaren Omenezkeko I. Ipuin Lehiaketa. 8-12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Informazioa: *www. zaldibar.eus*
*Lanak udalera helarazi behar dira, urtarrilaren 18ra bitartean.*

**ZORNOTZA Erakusketa**
'Jai demokratiko batzuen aldeko borroka. 1975-1976ko Karmenak' (Mikel Etxebarria Etxeita)
*Zelaieta Zentroan, abenduaren 22ra bitartean.*

**ZORNOTZA Ekitaldia**
Gabonetako argien piztea.
*Plazan, 18:00etan.*

**ZORNOTZA Pilota**
Pilota Pro Fest.
*Amorebieta IV. Frontoian, 20:45ean.*

## ZAPATUA 6

**DURANGO Lehiaketa**
Durangaldeko Gazteen VIII. Lehiaketa Artistikoa. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatuta.
*Ezkurdi aretoan, abenduaren 15era bitartean.*

**DURANGO Erakusketa**
'Harri eta urre' (Gotzon Garaizabal Pildainen artelanak)
*Hutsune espazioa (Santan Ana), abenduaren 6an eta 7an.*

**ELORRIO Pintxo bira**
Buzkantz jaia.
Buzkantz pintxo bira ekimenagaz bat egin duten tabernetan: Zubiertz, Mai, Batzokia, Portalekua, Bikale, Tanger, Xelai, Parra eta Urreberri.
*Elorrion, egun osoan zehar.*

**IURRETA Kontzertua**
Moonshinerds taldea.
*Korta tabernan, 19:00etan.*

**IZURTZA Azoka**
Nikolas Azoka.
*Frontoian, 10:00etatik 15:00etara.*

## DOMEKA 7

**ATXONDO Azoka**
Nekazari eta artisau azoka.
*Apatako plazan, 11:00etatik 14:30era.*

**DURANGO Kontzertua**
Sermond's.
*Piztu tabernan, 16:30ean.*

**ELORRIO Dastaketa**
Buzkantz jaia.
Pintxo dastatzea (txartelak salgai, 10:00etatik 13:00etara, Turismo Bulegoan). Botoa Turismo Bulegoan eman daiteke, 14:45era bitartean. Bitartean, photocall-e eta umeentzako jolasak.
*Herriko lau elkarteetan, 12:00etatik 14:30era.*

## MARTITZENA 9

**ELORRIO Sari ematea**
Buzkantz jaia.
Odoloste txapelketaren sariketa.
*Iturri kultur etxean, 13:30ean.*

**IURRETA Berbaldia**
Agora: Ezagutzaren plaza: 'Etxeko ekonomia nola kudeatu', Kontsumobidek kudeatuta (Hizlaria: Saioa Sagastizabal).
*Herri bibliotekan, 18:00etan.*

**ZORNOTZA Bisita gidatua**
'Jai demokratikoen aldeko borroka. 1975-1976ko Karmenak' erakusketaren bisita gidatua eta berbaldia.
*Zelaieta zentroan, 19:00etan.*

## BARIKUA 12

**BERRIZ Dantza**
'Amama' (Aukeran dantza taldea)
*Kultur Etxean, 17:00etan.*

**DURANGO Kontzertua**
Gabon kontzertua: 'Un paseo por Italia', Mr Swing soka taldearen eskutik.
*Otamotzena auzogunean, 19:00etan.*

**ELORRIO Dantza**
'Cowards' (Ángel Durán Performing Arts konpainia).
*Arriola antzokian, 20:00etan.*

**IURRETA Kontzertua**
Iker Piris.
*Korta tabernan, 20:00etan.*

## ZAPATUA 13

**BERRIZ Antzerkia**
'Charlas del azucarillo' (Las Couchers konpainia).
*Kultur Etxean, 19:00etan.*

**DURANGO Musika**
'Pause' (Xabier Zeberio eta Bartolome Ertzilla Musika Eskola). XXXVI. Musika Hamabostaldiaren barruan.
*Plateruena kultur aterpean, 19:00etan.*

**IURRETA Kontzertua**
Malatestta.
*Korta tabernan, 20:00etan.*

**ZORNOTZA Azoka**
Gabonetako azoka.
*Herriko plazan, 11:00etan.*

**ZORNOTZA Kontzertua**
Aita Eliseoren omenezko kontzertua: Soinu Txikie, Xuxurlariak, Coral Zornoza eta Abeskimu abesbatza.
*Karmelo ikastetxean, 20:00etan.*

**ABADIÑO Kontzertua**
Fosil taldearen hardcore punk doinuak entzuteko aukera egongo da domeka honetan, Abadiñon. Durangaldeko musika taldeak sentimenduetatik sortutako musika egiten du.
*Abenduak 7an, domekan, Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.*


FOSIL

## ZINEMA

**BERRIZ**

KULTUR ETXEAN

**Tigre galdua**
Domeka 7: 17:00.

**DURANGO**

ZUGAZA

**Five nights at Freddy's**
Barikua 5: 18:00, 20:30.
Zapatua 6: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka 7: 16:00, 18:15.
Astelehena 8: 17:00, 19:30.
Martitzena 9: 18:00, 20:15.
Eguaztena 10: 19:00.

**Coartadas**
Barikua 5: 18:00.
Zapatua 6: 19:15.
Domeka 7: 18:15.
Astelehena 8: 20:00.
Martitzena 9: 18:00, 20:15.
Eguaztena 10: 19:00.

**Papeles**
Barikua 5: 20:30.
Zapatua 6: 21:30.
Domeka 7: 20:30.
Astelehena 8: 19:30.
Martitzena 9: 17:45, 20:15.

**MInecraft film bat**
Zapatua 6: 17:00.

**Looney Tunes. Lurrak eztanda egin zuen eguna**
Domeka 7: 16:00.

**Kayara. Inka gerraria**
Astelehena 8: 17:00.

**La deuda**
Eguaztena 10: 19:00.

**ELORRIO**

ARRIOLA ANTZOKIA

**Un simple accidente**
Zapatua 6: 20:00.
Domeka 7: 20:00.
Astelehena 8: 20:00.

**ZORNOTZA**

ZORNOTZA ARETOA

**Ciudad sin sueño**
Barikua 5: 20:00.
Zapatua 6: 20:00.
Domeka 7: 20:00.
Astelehena 8: 20:15.

**Super Charlie**
Zapatua 6: 17:00.
Domeka 7: 17:00.

**Bird**
Martitzena 9: 19:00etan.





Unax Carballo eta Jon Gerrikabeitia, Europako txapeldunen urrezko dominagaz.

# "Apiriletik ideia bat geneukan buruan: Georgiari irabaztea"

**UNAX CARBALLO ETA JON GERRIKABEITIA** ERRUGBI JOKALARIAK

Oraintsu Europako Txapelketa irabazi dute Espainiako selekzioagaz. Txekiako Errepublikako hiriburuan jokatu zen finala, Pragan, eta Georgia menderatu zuten

**Joseba Derteano** DURANGO

Jauzi handi bat emanez, Jon Gerrikabeitia Rodriguez (Durango, 2007) eta Unax Carballo Fernandez (Durango, 2007) Durango Rugby Taldeko 18 urtez azpiko taldetik Gernikako senior mailara igaro dira aurten. Espainiako selekzioagaz 18 urtez azpiko Europako txapelketa irabazi berri dute. Lorpen esanguratsua da errugbi 15ean, Espainiako gizonen selekzioak 2012tik hona Georgiari irabazi dion lehenengo aldia izan delako.

**Zelan mentalizatu zineten finalera begira?**

**Jon Gerrikabaitia:** Finalera arte egindako bideak asko motibatu ginduten. Esaterako, Belgikaren aurka 64-0 irabazi genuen, eta Holandaren aurka

## "TXIKIAGOTUTA IKUSTEN GENITUEN, PARTIDUTIK IRTENDA LEZ. HORREK MOTIBATU GINTUEN"

52-0. Puntu asko egin geuen, eta gutxi jaso. Selekzio horiek ez dira berez oso indartsuak, baina aurreko urteetan estuago hartu gintuzten; hau da, aurrekoetan gehiago kostatu zitzaigun eurei irabaztea. Horrek hauspoa eman zigun finalera begira.

**Unax Carballo:** Horrez gainera, esperantza ematen zigun beste aurrekari bat ere bazegoen: apirilean jokatutako torneo batean, Georgiaren parean edo eurak baino hobeto ibili ginen. Gainera, euren indarguneak eta ahulguneak ezagutu genituen. Apiriletik ideia bat geneukan buruan: Georgiari irabaztea. Hala ere, bagenekien aurkari gatxa izango zena, jokalari oso indartsuak eta handiak dituztelako.

**Espainia-Georgia denek itxaroten zuten finala zen.**

**J.G.:** Bai. Txapelketa hasi barik zegoela, entrenatzaileari Espainia-Georgia final posibleari buruz galdetzen zioten elkarrizketetan. Baina guk argi geneukan pausorik pauso joan behar genuena, faboritoen artean geunden arren.

**Non egon zen finaleko gakoa?**

**U.C.:** Euren aurrealdea oso indartsua da eta bagenekien eurei eustea garrantzitsua izango zena. Jokalari handiak direnez, argi geneukan plakaketetan azpitik heldu behar geniela, hanketatik eta orkatiletatik. Gero, *mol* indartsua dutenez, ahalik eta *mol* gutxien sortzen ahalegindu ginen.

**Atsedenaldira atzetik joan zineten (5-3), baina bigarren zatiko entsegu batek bidea erraztu zizuen.**

**U.C.:** Entseguak aldatu zuen gehien markagailua, baina lehenengo zatian ere, galtzen joan arren, denbora askoan euren zelaian egon ginen. Bigarren zatian, puntu batzuk lortu genituenean, lasaitu egin ginen. Partiduari buelta emateko denbora gutxi geratzen zela ikusten genuen.

**J.G.:** Normalean harro samarrak izaten dira eta lehenengo zatian, eurak aurretik joan arren, txikiagotuta ikusten genituen, partidutik irtenda lez. Horrek motibatu egin gintuen.

**U.C.:** Nik partidu erdi jokatu nuen eta zelairatu eta lasterrera min hartu nuen. Jokalari batek kolpe bat eman zidan koadrizepsean. Sufritu egin nuen, baina neukan dena ematen ahalegindu nintzen.

**Orain ligan zentratuko zarete. Zelakoa izan da Gernikagaz orain arte bizi izan duzuen esperientzia?**

**J.G.:** Oso ona. Biok salto handia eman dugu aurten: Durango Rugby Taldeko 18 urtez azpiko taldetik goragoko maila batean dabilen senior talde batera. Jokoa asko aldatzen da, biziagoa da, jokalariak handiagoak dira… Taldean lehiakortasun handia dago eta hori asko gustatzen zait, motibatu egiten nau.

**U.C.:** Niretzat ere oso esperientzia ona izaten ari da. Zuzendaritza berria dago, entrenatzaile eta jokalari asko ere berriak dira, baina talde batua sortu dugu. Familia bat gara.

**J.G.:** Taldean esperientzia handiko jokalariak daude, Hegoafrikako batzuk tarteko, eta asko laguntzen digute. Hobetzeko aholku eta gomendioak ematen dizkigute. Beste hainbeste gertatzen da entrenatzaileekin ere. Biok asko ikasten gabiltza.

**Askotan jokatzen duzue?**

**J.G.:** Oraingoz partidu askotan jokatu dut, bai, beti aulkitik irtenda. Batez beste, 20-30 minutuan jokatzen dut partiduko. Aurreko baten partidu erdi eman nuen zelaian, 40 minutu. Hasieran beldur nintzen jokatuko ez ote nuen; eta jokatzen nabilenez, pozik nago.

**U.C.:** Nik, normalean, titular jokatzen dut eta pozik nago. Fisikoki exigentea da, baina ondo daramat.

**Gernika ez dabil boladarik onenean ligan azken asteetan. Zein da aurtengo helburua?**

**J.G.:** Indartsu hasi genuen liga, baina gorabeherak izan ditugu, lesioengaitik eta. Orain berriro gorantz egin dugu. Esaterako, Kopan Lehenengo Mailan dabilen Santboi taldea menderatu genuen, eta joan zen asteburuan Valentziari irabazi genion. Ondo ikusten dut taldea. Igoerako kanporaketara sailkatzea da helburua, eta badugu aukera mailaz igotzeko.



Abenduaren 12tik 14ra ere emanaldiak izango dira. SD AMOREBIETA

# SD Amorebietaren dokumentala abenduaren 11n estreinatuko da

**FUTBOLA** Antzinatasun handiagoko bazkideentzako saioa da. Hurrengo egunetan ere egongo dira emanaldiak

**J.D.** ZORNOTZA

Zornotza Aretoak *¡Azules! Herri baten oihua* dokumentalaren estreinaldia hartuko du abenduaren 11n, 19:30ean. Zigor Aiarza eta Ander Garizurieta zornotzarrek zuzendu dute dokumentala, eta Pausa Digitalek ekoitzi. “Dokumentala SDAren ehun urteetako ibilbide intimoa da, eta azken 25etan arreta berezia jarri da”, azaldu dute zuzendariek klubeko ohar batean.

Abenduaren 11ko estreinaldira klub zornotzarreko 100 bazkiderik zaharrenak joan ahal izango dira, hau da, 1 zenbakitik 100 zenbakira doazen txartelen titularrak. Bazkide horiek klubeko dendan jaso behar dute gonbidapena, abenduaren 2tik 9ra arte, 10:00etatik 13:00etara. Hilaren 9ra bitartean hartu ez diren gonbidapenak gainerako bazkideen eskura ipiniko dituzte hurrengo egunetik aurrera.

Gainerako bazkide eta zaleek hiru aukera dituzte dokumentala doan ikusteko: barikuan, hilak 12; zapatuan, hilak 13; eta domekan, hilak 14. Denetan, 20:00etan. Sarrerak Zornotza Aretoaren webgunean daude eskuragarri.

# Kimu mailako talderik onenak, Zornotzako torneoan

**FUTBOLA** Abenduaren 6an eta 7an goi mailako 23 talde eta 350 ume batuko dira Txolon zelaian

**J.D.** ZORNOTZA

Lointek Amorebieta-Etxano CUP nazioarteko futbol 7 txapelketa zapatuan jokatuko da, 09:30ean hasita. Lehenengo faseak 12 talde izango ditu. Domekan, kimu mailako Girondins Bordeaux, Athletic Club, Real Sociedad, CA Osasuna, eta Deportivo Alaves taldeek jokatuko dute, besteak beste. Final-laurdenak 16:00etan hasiko dira, eta final handia 18:15ean. Hilaren 7ko hainbat partidu zuzenean ikusi ahal izango dira, SD Amorebieta klubeko YouTube kanalean. Abenduaren 6ko sarrera doakoa izango da bazkideentzat, eta 3 euroko kostua izango du gainerakoentzat. Abenduaren 7an, bazkideek 3 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 5 euro. Txoloneko aparkalekua itxita egongo da egun bietan, eta antolatzaileek udalerriko parkingetan aparkatzea gomendatu dute.



Aitor Hernandez, Berrizko helmugara sartzen. IRANTZU SOLAGUREN

# Zornotzako ziklo-krosak 150 lehiakide inguru batuko ditu

**TXIRRINDULARITZA** Berrizko proba irabazi berri duten Aitor Hernandez eta Ainara Elbusto dira faborito nagusiak

**J.D.** ZORNOTZA

Zornotzako ziklo-krosak Berrizkoari erreleboa hartuko dio domeka honetan. Eszenatokia aldatuko da, baina faboritoen zerrenda ez. Berrizen Aitor Hernandez eta Ainara Elbusto nagusitu ziren eta Zornotzan ere eurak izango dira irabazteko hautagai nagusiak, Jonathan Lastragaz batera. Zornotzako aurtengo proban nobedade bat dago: San Migel kaleko lanak direla eta, irteera eta helmuga Nafarroa kaleko aparkaleku handian izango dira. Antolatzaileek ibilbidea ere moldatu behar izan dute. 09:30ean Master 40, 50 eta 60 mailako lasterketak hasiko dira, eta segidan kadeteak (10:30), juniorrak (11:15) eta eliteak (12:15) lehiatuko dira.

Junior mailan, eskualdeko ziklistak faboritoen artean daude. Zornotzako F2 Informática taldeko Eñaut Bilbao mallabitarra oso ondo dabil aurten. Tolosako ziklo-krosa irabazi zuen eta Elorrion podiumera igo zen. Café Dromedario-Flotamet taldeko Andoni Villate zornotzarra eta Ander Mendizabal abadiñarra ere aurrean ibiltzeko hautagaien artean daude.



JOKALDIA

**OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR** MENDI LASTERKETAK

## Ahaztu irabaztea eta galtzea

*Utz itzazu alde batera garaipena eta porrota. Modu horretara baino ez dituzu aurkituko poza eta zoriona, garaipena eta porrota behingoz ahaztuta; eta anbizioari ostikada bat emanda, anbizioa oztopo baino ez delako. Anbizioa gure egoaren bidaia da; dena delakoa lortzeko bidaia: garaipenak, dirua, boterea, prestigioa…. Beraz, baztertu ezazu anbizioa. Bizitza jolas bat da, joko bat, kirol bat. Ondo jokatu, ahaztu irabaztea eta galtzea.*

*Benetako kirol espirituak ez du zerikusirik irabaztearekin eta galtzearekin; hori ez da garrantzitsua. Benetako kirolariak, benetako jokalariak, gozatu egiten du parte hartzen, gozatu egiten du jokoan. Irabazteko asmoz eta helburuz jokatzen baduzu, urduri egongo zara, eta larri ere bai. Jokoak berak ez dizu inporta izango, eta jokoak ematen dituen alegrantzia eta misterioa ez dira garrantzitsuak izango zuretzat. Emaitza bakarrik, emaitza baino ez duzulako helburu eta amets. Beraz, emaitzaren gatibu izango zara, eta haren araberakoa izango da zure aldartea, haren arabera egongo baitzara pozik, umoretsu, irribarretsu, praketan kabitu ezinik… edo triste, ernegatuta, bekozkoarekin, lur jota... Garaipena zein porrota besapean estu hartuta, aldarte batean orain eta bestean gero, hori ez da munduan bizitzeko modua, haize-orratza baino zoroago ibiliko baitzara, noraezean eta iparra galduta.*

**"BENETAKO KIROL ESPIRITUAK EZ DU ZERIKUSIRIK IRABAZTEAREKIN ETA GALTZEAREKIN"**

*Bizi zaitez munduan zer gertatuko den pentsatu barik. Irabazi zein galdu, berdin dio, horrek ez du batere garrantzirik. Inporta duen bakarra da nola jokatu duzun edo nola hartu duzun jokoa. Benetan gozatu duzu jokoarekin? Hala bada, alegrantziak besarkatu eta oso-osorik harrapatuko zaitu.*

Irakurle, orain arte irakurri duzuna ez da nire uztakoa, ez dut nik idatzi. Liburu baten irakurri dut (gaztelaniaz) eta gogoetarako leiho bat zabaldu dit. Zurekin konpartitu gura izan dut, besterik ez.

## GUARDIAKO BOTIKAK

**ABENDUAK 5, BARIKUA**

**09:00-09:00**
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ABENDUAK 6, ZAPATUA**

**09:00-09:00**
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ABENDUAK 7, DOMEKA**

**09:00-09:00**
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ABENDUAK 8, ASTELEHENA**

**09:00-09:00**
De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ABENDUAK 9, MARTITZENA**

**09:00-09:00**
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**ABENDUAK 10, EGUAZTENA**

**09:00-09:00**
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**ABENDUAK 11, EGUENA**

**09:00-09:00**
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## ZORION AGURRAK



ABADIÑO
**Yosu**
Azaroak 24. Azaroaren 24an Abadiñoko banatzailerik onenak, Yosu Echevarriak, urteak egin zituen. Zorionak, fenomeno!



DURANGO
**Nora**
Azaroaren 30ean, 5 urte. Zorionak, Nora, esku bete urte gure etxeko txikixek. Prest kandelei putz egiteko?



DURANGO
**Alain**
Abenduaren 6an, 5 urte. Zorionak, Alain! Abenduaren 6an 5 urte egingo dituzu. Egun polit bat pasatzea espero dugu. Etxekoen partez, besarkada eta muxu handi bat!



6 urte 6 muxu potolo!

GOZOTEGIA gozatu DURANGO
**GOZATU GOZOTEGIA**
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

## Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etorrri zaitez Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

## EGURALDIAREN IRAGARPENA









# INMOBILIARIAK

ETXETXO INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com




**MATIENA** 68 m2. 3 logela, sukalde-egongela eta komuna. Terraza. Trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan.




**ATXONDO** 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.




**J. OLAZARAN** ERDI BERRIA. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua.




**OTXANDIO** ETXEA. 262 m2. Erdigunean. 3 solairutan banatuta. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.




**BASERRIA** BERRIZTATUTA. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila.

AMBOTO INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**DURANGO**

**Goienkalea:** Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**

**Kurutziaga:** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

**Barrenkalea:** Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

**Tabira:** 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

**Barrenkalea:** Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

**ATXONDO**

**Atxondo:** 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

**Atxondo:** 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

**LURSAILAK SALGAI**

**Urrutxua:** 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

**BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**

**Muxika:** Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €**.

**Abadiño**: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

**Berriz:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**Atxondo:** Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.

**Mañaria:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**BULEGOAK ALOKAIRUAN**
**ABADINO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 **€**-tik hasita. Argia eta wifia barne.

**DURANGO**

**Ermodo kalean.** 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

**LOKALAK ALOKAIRUAN**

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

**LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**

**Matiena:** 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

**Elorrio:** 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

**LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI**
**BERRIZ**

**Berriz:** Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com




**DURANGO** **Antso Estegiz:** 42,50 m2. Berriztatuta. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna dutxarekin. Egoera ezin hobean. Etxe erdiak kanpora ematen du. Erdigunetik gertu. 6 m2-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa.




**MATIENA** **Trañabarren:** 94,8m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietako bik horma-armairuak dituzte) komuna, bainugela eta despentsa handia leihoarekin. Toldo automatikodun balkoia. 14,25 m2-ko ganbara. Aparteko garaje-partzela erosteko aukerarekin.




**ABADINO** **San Trokaz:** 33,65 m2. Egongela-sukadlea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna dutxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du ( hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.




**BERRIZ** **Agirre Lehendakariaen pasealekua:** 85m2. Halla horma-armairuarekin, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua dutxarekin eta leihoarekin. Balkoia. Egoera onean. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.




**DURANGO** **Anboto kalea:** 70 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. Iparraldea. Leku onen kokatuta. Zerbitzuguneak. Berrikuntzak behar ditu. Igogailua. ITE-a pasatutakoa.

AGENCIA INMOBILIARIA Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

**BERRIAK**
**DURANGO**

**Andra Mari:** 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. **240.000 € / E.E:Z=E** igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero **270.000 €.**

**DURANGO**

**Antso Eztegiz:** 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta komuna. Balkoia. **160.000 € / E.E.Z=F**

**Barrenkalea:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**Juan Antonio Abasolo:** 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

**Juan de Olazaran:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**Komentu kalea:** 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

**ABADINO**

**Dendarikoa:** Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

**Eskolakoa:** Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

**ATXONDO**

**Artekalea, 13:** Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

**BERRIZ**

**Murgoitio auzoa:** Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

**Eitua:** Berreraikitzeko baserria lursailarekin. LEHEN **350.000 € ORAIN 330.000 €**

**GARAI**

**Momoitio auzoa:** Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

**GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO**

**DURANGON SALGAI**

**Alluitz:** Garaje itxia. **24.000 €.**

**Kurutziaga:** garajea. **18.000 €.**

**Kurutziaga:** Garaje itxia **22.000 €**.

**Madalenoste:** Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

**Plateruen plaza:** Garajea **25.000 €.**

**DURANGON ALOKAGAI**

**Muruetatorre:** Garajea. **75 €** / hilean.

**Antso Eztegiz: 45 €** / hilean. Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

**LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO**

**DURANGON SALGAI**

**Komentu kalea:** 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E.Z=F**

**Aliendalde:** 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**

**IURRETA**

**Zubiaurre:** 11m2-ko lokala. **20.000 €** negoziagarriak.

**Padureta:** 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €** Alokagai: **1.680 €** /hilean.

Beste aukera batzuk bulegoan galdetu

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es



LAU-HORTZA



**KAROL SUAREZ BORGES**

## Hasi orduko ajea

“Tripontzia!” oihukatzen duenak esnatuko nau bihar. Durangoko Azokak iraun bitartean gorrotatuko dut. Txartel denak saltzea opa diot, baina ajea izango dut eta ez parrandagatik (bakarrik).

Kultur gune bakoitzetik harago mundu berri bat eratzen da egunotan hemen; elkar elikatzen duten izaki eta energia askoren sarea. Desberdinak elkar gurutzatzen, bakoitzak bere beroa, bere mugimendua eta bere zentzua ekarriz. Egun gutxitako ekosistema efimero, sendo eta apartekoa.

Ekosistema horretan denerik dabil: aspaldi elkartu gabeko lagunen besarkadak, ulerkera ezberdineko manifestazioak, “liburu dendan erosi”, garagardo mordoa, merchandisinga, “azoka alternatibora bakarrik”, pankartak, zozketak, konpromisoak, bilerak, familia, lankide ohiak, berriak, festa eta borroka...

Guztia kale eta egun jakinetan. Hasarre gaudenok ere topo egiten dugu, esateko dugunaren plaza ere badelako hau. Kontra izan edo alde, guztiok behar duguna.

Horregatik ajea: herri honetan gertatzen den guztia ezin delako lau egunetan asimilatu. Durangok du ahalmena hamarmilaka euskaldun eta langile ezberdin batzekoa. Kulturaren eta hizkuntzaren baitan. Halako gehiago behar ditugu Lanestosan, Barrundian edo Heletan. Bitarte horretan, Palentinoan izango nauzue, txintxorta jaten.

AKUILUA

# "Su Ta Garrek eszena berri bat ekarri zuen"

**URKO ANSA MENDIZABAL** MUSIKA KRITIKARIA

Su Ta Gar taldeari buruz idatzitako kronika, iritzi eta elkarrizketak bildu, eta fanzine bat plazaratu du: 'Su Ta Gar 2000-2024'. Azoka alternatiboan egongo da salgai

**Aitziber Basauri** DURANGO

Urko Ansa (Errenteria, 1975) postaria da Durangon, eta 2009tik hona musika kritikari ere bada. *Mondo Sonoro* eta *Badok* musika aldizkarietan idatzi du, eta, azken urteetan, *Berria* eta *Gara* egunkarietan. Su Ta Garren ibilbidea hasieratik jarraitu du eta iazko Durangoko Azokaren harira kaleratu zuen Eibarko taldeari buruzko fanzinea. Underground eszenako produktu autogestionatua atera zuen.

***Su Ta Gar 2000-2024* fanzinea ia 25 urteko bilduma da. Azoka alternatiboan ipiniko duzu salgai.**

Musika kritikari gisa taldeari buruz nuen material osoaren bilketa izan behar zuen hasieran, baina ia 25 urteko ibilbidearen bilduma osatzea erabaki nuen. 2000tik 2009ra arteko guztia berria da, fanzinerako idatzitakoa. Maia Noiak egin ditu azala eta kontrazala. Fanzinea azoka alternatiboan egongo da; modu ona iruditzen zait zikloa ixteko.

**Zein izan zen zure lehenengo hartu-emana Su Ta Garregaz? Gogoan duzun momentu bat?**

Oiartzunen, 14 urte nituela. Izugarria izan zen. Gazteak ginen eta ez genuen thrash metalaren mundua ezagutzen. Heavy metal talde baten soinua zuten, eta, gainera, euskaraz kantatzen zuten. Inpaktua berehalakoa izan zen. Geroago, Mikel Laboaren omenezko diskoa etorri zen: *Txerokee*. Taldeak *Haika Mutil* abestiari buelta eman, eta brutala bihurtu zuen. Heavy metal zale izan gabe ere, jarraitzaile sutsuak izan dituzte. Fenomeno bitxia da hori. 2009an Aitor Gorosabeli egindako lehen elkarrizketa oso gogoan dut. Bi-hiru ordu eman genituen berbetan, Bilboko taberna batean. Pertsona ezagutzea esanguratsua izan zen, zale eta kazetari gisa.



**"OIARTZUNEN ENTZUN NITUEN LEHENENGOZ, 14GAZ. INPAKTUA BEREHALAKOA IZAN ZEN"**

**Zein ekarpen egin dute?**

Erdal munduan zegoen heavy metalean euskara uztartu zuten, eta horrek eszena berri bat ekarri zuen: Euskal Heavy Metala. Ondarroako Gaztetxean eman zuten lehen kontzertua, 1988an, eta inpaktua bikoitza izan zen: ikusleena heavya euskaraz entzutean, eta taldekideena aurrean zituzten heavy peto-petoak euskaraz entzutean.

**Su Ta Gar sasoiko dago oraindino?**

Bai. 37 urteren ondoren, hor daude, maila ona emanez eta musikaz bizitzen. Urteak aurrera doaz eta diskoen kalitatea ez da jaitsi. Urtarrilean joko dituzten kontzertu bitako sarrerak agortuta daude (Jimmy Jazz eta Santana). Igual ez maila masiboan, baina arrakasta hor dago. Taldeak marka propioa du, soinu propio bat. 90eko hamarkadan egin zuen eztanda, eszena berria sortuz. Atzetik hainbat talde etorri ziren (Latzen, Asgarth...).

**Abesti bat?**

*Beti aurrera*, letragatik eta izan duen progresioagatik.

**Zer zara gehiago, Su Ta Garren jarraitzailea ala musika kritikaria?**

Kritikaria. Talde asko daude, oso onak. Anje Duhalde, Benito Lertxundi... eta Niko Etxarten zale amorratua ere banaiz.

**Beste nori buruz egingo zenuke fanzinea?**

Niko Etxart edo Akelarre. Baina lan handia eskatzen du.

